


Henri DUHAU



HÄSiÄN HÄSi

BESKOITZEKO EUSKARA
(BESKOITZEKO HESKUĀRA)



Henri DUHAU

HASIAN HASI

BESKOITZEKO EUSKARA

[BESKOITZEKO HESKUARA]

1993

HENRI DUHAU



Beskoitze Iturrealdean sortua 1942ko urriaren 9an.

Laborari semea; laborantzako ikasketak.

Soldadutzatik landa, lur berri egiten, Donapaleutik, teknikari eta aholkulari gisa, Jean Errecart senatariaren zuzendaritzapean. Senpererat ezkondua 1968an. Geroztik, merkataritzan.

Euskaltzaleen Biltzarrekooa 1964z geroztik.

Zenbait taldetan lanean : Fededunak, Sokoa, AEK, Gure Irratia eta bertze.

Elkartea sortzaileetarik izana: Beskoitzeko Oinak-Arin dantzari taldea, Senperen Aro Berri, Senpereko ikastola, *Aide Familiale Rurale*, Fededunak, IZAN...

Elkarteburu ere izana: Euskaldun Gazteria, Senpereko dantzari taldea “Zirikolatz”, Senpereko Gure lurrik, Iparraldeko Euskal Dantzarien Biltzarra.

Idatzi du aldizkari hauetan : “Gazte” kazetan (lehen artikulua euskaraz, 1961eko urtarrilean) Herria, Otoizlari, Dantzariak, Ekaina, Denak Argian, Enbata...

Hasian Hasi Beskoitzeko euskara (1993)

© Egilea : Henri Duhau “Mariatorenea” 48, Karrika Nagusia 64310 Senpere.

© Argazkiak : Henri Duhau (bertrze izenik ez baderamate)

Azala : Irkus Robles Aranguiz

AURKIBIDEA

LANTTO HUNEN IRAKURTZEN LAGUNTZEKO HIZTEGIA.....	4
SEINALE EDO EZAGARRI BATZUIEK ZER ERRAN NAHI DUTEN.....	5
LANTTO HUNTAKO IDAZKERA	6
BI ELE ADIXKIDE IRAKURTZAILEAREKIN.....	7

AHOZKATZEA :

1§ LANTTO HUNTAKO EUSKAL ALFABETUA.....	16
2§ AHOZKO EUSKARA NOLA IDATZI.....	16
3§ DIPTONGATZEAZ.....	17
4§ BOKALE GALKORRAK.....	18
5§ DIPTONGO GALKORRAK.....	19
6§ KONTSONANTE GALKORRAK.....	19
7§ SILABA GALKOR BATZU.....	22
8§ BOKALE BATZU ZER BILAKATZEN.....	23
9§ KONTSONANTE BATZU ZER BILAKATZEN.....	25
10§ KONTSONANTEA GALTZEAN BOKALEA LUZATZEN.....	29
11§ AHOZKATZE MAILEAN, DEKLINABIDEKO OHARGARRIENAK.....	31
12§ BOKALE BATZUIEK BERTZEA JATEN.....	31
13§ BOKALEK ELGAR KUTSATZEN	32
14§ HITZEK ETA FORMA BATZUIEK ERE ELGAR KUTSATZEN.....	33
15§ BOKALEN JOSTURA BATZU.....	33
16§ SILABA BATZU ALDERANTZIZKA.....	34
17§ LABURTZE HANDI BATZU.....	34
18§ HOMOFONOAK ETA KASIK HOMOFONOAK.....	35
19§ BUSTIDURA ETA DIMINUTIBOAK.....	36
20§ AHOZKATZE SOINUIAREN ARABERA ADIERA ALDATZEN.....	38
21§ HIZKI BATZUIEN AHOZKATZEAZ (Y — S — J — Ü — H)	38
22§ ATZIZKI ZONBEIT.....	39

DEKLINABIDEA :

23§ DEKLINABIDEAZ ETA HAREN AHOZKATZEAZ.....	42
24§ MUGAGABEA ETA PLURALA.....	42
25§ BIZIDUNAK ETA BIZIGABEAK.....	42
26§ INESIBO ZAHARRA.....	42
27§ ADITZ IZENA INESIBOAN.....	42
28§ DIPTONGOZ BURURATZEN DIRENAK.....	42
29§ BIRDEKLINATZEA.....	42
30§ «OIHAN».....	43
31§ «MENDI».....	44
32§ «LANDA».....	44
33§ «BURU».....	45
34§ «ALABA».....	45
35§ «ETXE».....	46
36§ «BESO».....	46
37§ ERAKUSLEAK.....	47
38§ «BESKOITZE».....	47
39§ ERAKUSLEN BIZIDUNAK.....	47
40§ ERAKUSLEAK BIRDEKLINATZEN.....	47
41§ LEKU-DENBORAZKO BEREZIAK.....	47
42§ LEKU-DENBORAZKO BEREZIAK BIRDEKLINATZEN.....	47

ADITZA :

<u>OCHARPEN OROKORRAK</u>	
43\$ GAUZEN IZENDATZEKO DOIA XEHETASUN.....	48
44\$ LEIHOEN MUNTATZEKO, ADIZKERA BATUAK.....	48
45\$ ADITZ JOKABIDEA.....	48
46\$ NOR-kiak, PRESUNAK eta IZEN ORDAIN ZONBEIT.....	49
47\$ ADIZKERAREN BARNEAN NOR-kiak ZOIN ZOINEKIN DABILTZAN...	49
48\$ NOR-kien EZAUTGARRIAK.....	49
49\$ NOR eta NOR-NORI — NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK.....	50
50\$ HAUTEMAN BEHAR DIREN BATZU.....	52
51\$ ADITZAK NUNDIK HELDU ETA NOLA DABILTZAN.....	54
52\$ ADITZ IZENAK SORTZEKO.....	55
53\$ KONTSONANTE BATZUIEN AHOZKATZEA.....	57
54\$ BIHURGARRIA ETA BIHURGAITZA.....	58
55\$ BIHURTZERAKOAN SALBUESPENAK.....	59
56\$ BIRDEN FORMA BATZU.....	65
57\$ ZU-kakoaren INDARRA.....	65
58\$ ELEKETARAKO ADIZKERAK NOREKIN.....	71
59\$ «BAIT-» ADITZ AURRIZKIA.....	81
60\$ «BA» BALDINTZA ETA «BA» BAIEZKARIA.....	81
61\$ «BA» BAIEZKARIA ETA «EZ» EZEZKARIA.....	81
62\$ BA + ADIZKERA BAT AHOZKATZEEAN.....	81
63\$ EZ + ADIZKERA BAT AHOZKATZEEAN.....	85
64\$ ADITZ DEKLINABIDE BEREZIA.....	85
65\$ ADITZAREN DEKLINABIDEA.....	85
66\$ PLURALGILEAK.....	95
67\$ «dAKOIAT» ALA «zAKOIAT».....	95
68\$ «DAiTZUT» ALA «DAuTZUT».....	97
69\$ ZA(n)KOIAN — ZAU(n)TAIAN — BANA(n)KIAN.....	97
70\$ NINTA(z)KEK — NINTA(z)KOIAN.....	99
71\$ BOKALE BATZUIEN ALDAKETAK.....	99
72\$ ADIZKERA GALDAKARIAK.....	99
73\$ 1. eta 3. PRESUNA BIHURGARRIA ELEKETARAKORIK GABE.....	101
74\$ EUSKARA BATUAK UNTSA BEHEXTEN.....	101
75\$ BESKOITZEN HOMOFONOTZEN DIRENAK.....	101
76\$ «LITAKEK» OBJEKTIBOA ALA SUBJEKTIBOA.....	101
77\$ DUDAZKO SAILKAPENAK INPERATIBOAN ERE.....	103
78\$ «ZUEK» [ziek] NOR-kia edo IZEN ORDAINA.....	103
79\$ ADIZKERA HUNDARREKO «-zii» (DUzii).....	115
80\$ ADIZKERA HUNDARREKO «-zie» (DAKOzie).....	115
81\$ ADIZKERA PLURALAK BI GISETARAT AKORDATZEN.....	115
82\$ ADIZKERA PLURALEK SINGULARRA KUTSATZEN.....	115
83\$ «HI» SINGULARRA ETA «ZU» PLURALA.....	115
84\$ DATIBOA AHULTZEN ARI.....	117
85\$ BALDINTZAK.....	118
86\$ BALDINTZAK BEREN ONDORIOEKIN.....	118

ADITZ LAGUNTZAILEN LEIHOAK : BATUA	BESKOITZEKOA
IZAN (NOR).....da	da..... 56
.....zen	zen..... 56
.....balitz	balitz..... 56
IZAN (NOR-NORI).....zaio	zako..... 60
.....zitzaion	zankon..... 62
.....balitzaio	balako..... 64
EDIN (NOR).....dadin	dadin [daajn]..... 56
.....zedin	zadin [zaain]..... 56
.....baledi	baladi..... 56
.....daiteke	ditake..... 58
.....zitekeen	zitaken..... 58
.....liteke	litake..... 58
.....bedi	bedi..... 58

UKAN	(NORK-NOR)	du zuen balu luke duke zukeen	du..... 66 zuen [ziin]..... 68 balu..... 70 luke..... 72 duke..... 74 zukan..... 74
UKAN	(NORK-NORI-NOR)	dio zion balio	dako..... 86 zakon..... 90 balako..... 94 dio..... 74 lio..... 76 zion..... 78
IRON	(NORK-NOR)	diro liro ziroen	dio..... 74 lio..... 76 zion..... 78
EZAN	(NORK-NOR)	dezan zezan baleza dezake zezakeen lezake beza	dezan..... 80 zezan..... 80 baleza..... 80 dezake..... 82 zezaken..... 82 lezake..... 82 beza..... 84
EZAN	(NORK-NORI-NOR)	diezaion ziezaion balezaio biezaio	dezakon..... 98 zezakon..... 98 balezako..... 100 bezako..... 102
ADITZ TRINKOEN LEIHOAK:		BATUA	BESKOITZEKOA
EGON	(NOR)	dago zegoen dagoke zegokeen bego	dago [doo]..... 104 zagon [zoon]..... 104 dagoke [dauke]..... 104 zagoken [zauken].... 104 bego..... 104
ETORRI	(NOR)	betor 104
IBILI	(NOR)	dabil zebilen bebil	dabila [daaila].... 106 zabilan [zaailan]... 106 106
JOAN	(NOR)	doa zihoan bihoa 106 zohan..... 106 106
ERRAN	(NORK-NOR)	dio	dio..... 108
EDUKI	(NORK-NOR)	zioen	zion..... 108
JAKIN	(NORK-NOR)	dauka zeukan daki zekien baleki lekike	dauka..... 108 zaukan..... 108 daki..... 110 zakien [zakin].... 110 balaki..... 110 lakike..... 112 dakike..... 112 zakiken..... 112
IGORRI ERABILI EMAN UTZI ERAKUTSI EROSI EGIN ORI (NORK-NOR)		114	
IGORRI ERABILI EMAN UTZI ERAKUTSI EROSI (NORK-NORI-NOR)....		116	
BIBLIOGRAFIA..... 119			
Aita Piarres LAFITTEren HITZA..... 120			
BESKOIZTAR BATEN GUTUNA, L-L. BONAPARTE Printzeari..... 122			
LAGUN BATEK IGORRIAK — ARREBAK IGORRIAK — KANTU — OROITZAPEN 124			
HIZTEGI AHULTZEA BELAUNALDI BATEZ..... 132			
GENEALOGIA — AIT'AMA MAITEAK — ETXEKO MAITEAK — BIXINTXO.... 133			
HIL-HARRI ZAHARRAK..... 138			
ETXE XAHAR EDERKI BERRITU BATZU, LAPURDIN GIRELA ERAKUSTEN DUTENAK 140			
Joanes LEIZARRAGA..... 142			
Beskoitzeko UR GAZIAK gorenean zirelarik... 144			
OTXALDE bertsularia Beskoitzen egona..... 146			
1952 : NESKATOKO GAZTEAK 148			
1952 : MUTIKO GAZTEAK..... 150			
1964 : «OINAK-ARIN»..... 152			
HASIAN HASIren LEHEN PARTEA ARGITARAT EMAITEAN..... 154			

LANTTO HUNEN IRAKURTZEN LAGUNTZEKO HIZTEGIA

Aholku bat eman.....	Donner un conseil
Adibide.....	Exemple
Adiera.....	Sens, signification
Aditz.....	Verbe
Aditz izen.....	Infinitif du verbe
Aditz taula.....	Cadre, planche de conjugaison
Aditz joko / jokabide.....	Conjugaison
Aditz jokagarria.....	Verbe conjugable
Aditz laguntzaile.....	Verbe auxiliaire
Aditz nagusi.....	Participe (Verbe)
Aditz trinko.....	Verbe qui peut se conjuguer sans auxiliaire
Aditzondo.....	Adverbe
Adizkera / adizki.....	Verbe conjugué, paradigme
Ahozkatze / ahoskera.....	Prononciation
Aldaketa.....	Changement
Alderantziz.....	Inversé, à l'inverse [kuntrezka]
Arazo.....	Problème, difficulté
Argazki.....	Photo
Argitaratu.....	Publier
Artoski.....	Avec soin, diligence
Atzizki.....	Suffixe
Aurrizki.....	Préfixe
Baldintza.....	Condition à réaliser / Grammaire: Suppositif
Batua, euskara batua.....	Langue basque unifiée
Belaunaldi.....	Génération
Bihurgarri, deklinagarri..	Déclinable
Bihurgaitz.....	Non déclinable
Bihurpen.....	Flexion
Bikain.....	Excellent
Bikoitz.....	Double
Bokale.....	Voyelle
Deitoragarri.....	Déplorable
Deklinabide.....	Déclinaison
Diptongo.....	Diphongue
Egoera.....	Situation
Egokia.....	Adapté, qui convient
Eleketarakoa.....	(TO-ka, NO-ka, ZU-ka, XU-ka) Allocutif, traitement
Erabaki.....	Décision
Erabilkera / erabilpen....	Mode d'utilisation
Eragin.....	Influence/r
Eraikuntza.....	Construction
Eraikidura / egitura.....	Structure
Erantsi.....	Ajouter
Erakusleak.....	Adjectifs démonstratifs
Erdara.....	Toute langue non basque
Euskalari.....	Bascologue
Euskalki.....	Dialecte basque
Euskaltzaindia.....	Académie de langue basque
Erranbide nagusi.....	Proposition principale
Erranbide menpeko.....	Proposition subordonnée
Eskubide / dretxo.....	Droit (justice)
Eta abar/ eta bertze.....	Etc...
Gaingiroki / axaletik.....	Superficiellement
Gaitzetsi.....	Désapprouver, désavouer
Garrantzi.....	Importance
Gutun / eskutitz.....	Lettre (correspondance)
Hauteman.....	Discerner
Hautsi-mautsi.....	Compromis

Helburu.....	But à atteindre
Hizki.....	Lettre alphabétique
Idatzi / izkribatu.....	Ecrire
Idazkera.....	Graphie
Idurimen / irudimen.....	Imagination
Ingurumen.....	Environnement
Inperatiboa / Agintekera..	Mode impératif
Ikerketa.....	Recherche, investigation
Ipuru.....	Bordure d'un champ pour manoeuvrer / Marge
Iritzi / aburu.....	Opinion
Izen arrunta.....	Nom commun
Izenondo / izenlagun.....	Adjectif
Jaidura.....	Penchant, inclination
Jatorrizkoa.....	D'origine
Kontsonante.....	Consonne
Laguntzaileaduna(aditz)....	Périphrastique
Mugagabe.....	Indéfini
Nabari.....	Evident
Ñabardura.....	Nuance
Oharpen.....	Remarque
Oker.....	Borgne / Défaut
Opa(tu).....	Souhaiter
Oraina / oraia.....	Le présent (conjugaison)
Oroimen [orhoimen].....	Mémoire
Ozen.....	Sonore
Perpaus.....	Phrase
Plurala.....	Le pluriel
Premia.....	Nécessité urgente
Sakon.....	Profond
Sakre.....	Juron
Salbuespen.....	Exception
Singularra.....	Le singulier
Soinu.....	Intonation, phonétique / Musique
Tirria.....	Désir vif
Ximen.....	Soigneux
Zerrenda.....	Liste

SEINALE EDO EZAGARRI BATZUIEK ZER ERRAN NAHI DUTEN

*	Izarttoek: hitzaren «erran-nahia» aurkitzen dela LANTTO HUNEN IRAKURTZEN LAGUNTZEKO HIZTEGIAn
[]	Makoek: nolatsu AHOZKATZEN den Beskoitzen
(te) (z)	Uztai arteko zati hori DUN edo GABE joan ditakela
(?)	Duda batzu (laguntzailen beharra...)
•d-	«d»ren ordez, «z» eman ditakela (aditz tauletan)
28\$	Lantto hunen hogoita zortzigarren zatia
28. hostoan	Hogoita zortzigarren hostoan

(N.B. Dans cet ouvrage les traductions françaises sont toujours succinctes : elles n'interviennent d'ailleurs, que lorsque le sens d'un mot ou d'une phrase l'exige)

LANTTO HUNTAKO IDAZKERA* (hautsi-mautsiz* egina)

	HASIAN HASI-koa	EUSKARA BATUA*
(bait-)	baitzen [bitzen]	baitzen
(-bait)	zonbeit	zenbait
	zonbat	zenbat
(gauza hau nola)	hola	honeala
(gauza hori nola)	hola	horrela
	orhoitu	oroitu
	euskara [heskuara]	euskara
DEKLINABIDEA (1 Singulararra)	buruia	burua
" (3 Plurala)...	etxeri	etxeei
" (5 Plurala)...	etxen	etxeen
" (8 Singulararra)	etxean [etxin]	etxean
" (8 Singulararra)	besoan [besun]	besoan
" (1 Singulararra)	hori [hoi]	hori
" (3 Plurala)...	heiek	haiek
" (nori) (3 Singulararra)	hari [harri]	hari
" (3 Plurala)...	horieri [hoieria]	horiei
" (3 Plurala)...	heieri	haiei
" (5 Singulararra)	hunen	honen
" (8 Singulararra)	hortan	horretan
" (8 Plurala)...	horietan [hoitan]	horietan
" (8 Singulararra)	huntan	honetan
" (8 Plurala)...	hauetan [hautan]	hauetan
" (8)	nun	non
" (10)	nungo/nunko	nongo
" (9)	nundik/nuntik	nondik
ADITZA (ni)	niz	naiz
" (gu)	gire [gie]	gara
" (ni)	nintagon [nintoon]	nengoen
" (ni)	nintabilan [nintaailan]	nenbilen
" (hura hari)	zako	zaio
" (hura heieri ORAINA)	zakote	zaie
" (hura heieri IRAGANA)	zitzakoten [za(n)koten]	zitzaien
" (ni hari)	ninta(z)kon	nintzaion
" (hik ni)	nintu(z)kan	ninduan
" (nik hura)	nio	niro
" (harek hura hari)	dako	dio
" (harek hura heieri)	dakote	die
" (harek ni)	nu	nau
" (heiek ni)	nute	naute
" (nik zu)	zitut	zaitut
" (nik hek)	nituen [nintiin]	nituen
" (harek ni)	nintuen [nintiin]	ninduen
" (harek gu)	gintuen [gintiin]	gintuen
" (guk hek)	ginituen [gintiin]	genituen
" (zuk gu)	gitutzu [gi(t)utzu]	gaituzu
" (nik hura)	dutan	dudan
" (nik hek)	ditudan [tuan]	ditudan
" (nu T0-ka)	nik	naik (?)
" (dute T0-ka)	die(k)	diate (?)
" (nintzen ZU-ka)	nintutzun	ninduzun (?)
" (nituen ZU-ka)	nintitzun	nitizun (?)
" (hik hura)	jan zak [jazak]	jan ezak
" (ke + n)	nuken	nukeen
	delarik [delaaiak]	delarik
	balin bada	baldin bada

BI ELE ADIXKIDE IRAKURTZAILEAREKIN

1981eko udan, Donostiako «ARANZADI» taldean euskalki* iker-tzaile* den Koldo ARTOLA Jaunak galdegin zautazun Beskoitzeko euskalkiaz zerbeit biltzen ahalko nakonetz. Beskoitze biziki famatuia duzu euskara ikertzen dutenen artean, ez gure euskara bertzerena baino hobeak delakotz, ez, bainan gure herrikoak zelakotz Joanes LEIZARRAGA Leizarragako semea, euskal idazle zaharretan izan den handienetarik bat. (Ikus haren aipamen bat 142. hostoa)

Eta Koldo-ri, gogotik baihetz bai ihardetsi nakozen, zeren-eta - hain xuxen - baitzuen boldaño bat ene sor herriko hizkuntzaren ikertzeko* gogoarekin nintagola. Nola jina zitzautan ideia hori ? Euskal Dantzarien Biltzarrean beti ari ditutzu miatu behar direla zoko guziak baditazkelakotz dantzak edo ohidura batzu, jende zonbeitek badazkitenak, bainan nehorni ez dituztelakotz erakusten galtzeko hirriskuian direnak. Dei horik aditzean, ene buruiarekin ari nintutzun : biltzeko gelditzen diren dantza hundar horik hoin garrantzizkoak* balin badire, EZ AHAL DUK GUTIAGO BEHARREZKO EUSKARAREN BILTZEA ! Herri osoak baitire ikertzekoak egungo egunean oraino...

Dena den, ARANZADIkoen lan hora laster egin behar zelakotz, arreba Abettun-ekin, galde batzuieri zalu-zaluia ihardetsi behar ukatzen eta urriki batekin bezala gelditu nintutzun ene lana lasterregi despeiturik ! Horra zertako hasi nintzen eskuan duzun lantto hunen egiten.

Erran dezazutan segidan, ez duzu hemen aurkituko ARANZADIkoentzat egin ginuen lan ttipi hora bera, ez eta ere euskal gramatika bat. Izaitekotz, erran nezakezu, BIERARTEKO zerbeit dela : euskalduna, bai, bainan euskaraz deusen ikasteko okasionerik ukatzen duenarentzat egina, gramatika bati lotu aitzin, urrats baten egiten lagun dezakelako ustearekin.

Nik berriz orai, xinpleki mintzatu nahiz, agian ez dutala hala ez denik jaliko !

Ene lana duzu, gehienik, Beskoitzeko euskararen MORFOLOGIA. Ez nehuntik ere osoa, segur oker* edo huts frangorekin, ez dena ere behar baino denen gostukoa izanen... Bainan denen ara ez baititake egin, jo aintzina ! HASIAN HASI, hiru alor miatu dititzut : AHOZKATZEA*, DEKLINABIDEA* eta bereziki ADITZA*.

Guzia ere hastapen bat baizik ez delarik eta agian izanen duzu, nitaz bertzerik ere, lan huni lotu nahiko duenik, makurren xuxentzeko lehenik eta gero ikertzeko gelditzen diren guziekin segitzeko. Baita nun zer egin...

Euskara batuaren* denborak direla-eta balio zuenetz berezitasun ondotik ibiltzea ? Lantto huntan, Beskoitzeko aditzaren parrez-par ezarri balin badut euskara batua edo gutienez literarioa, ez duzu

ustegabetarik ! Zeren ene iritzia* baita euskaldun bakotxak jakin behar lutzela - gutienez konprenitu - bere HERRIKO EUSKARA eta EUSKARA BATUA.

Hortakotz, lehenik behar ginikezu euskaraz alfabetatzeari lotu gure etxeeko edo herriko euskara barnatik ikasiz, gero euskara batua aise konprenitzen baita eta baliatzen hala beharrean. Euskalki guzietarik bildurik, euskara batuak badauzkatzu zernahi adizkera*. Bainan lantto huntan, Beskoitzen erabiltzen direnen parrez-parrekoak baizik ez ditutzu kausituko.

Aditz jokatuia* - ELEKETARAKOA* salbu - "batetaratuia" duzu ; bainan gure mintzaira ez duzu «aditza» bakarrik gero ! Asko sailetan euskara batua EGITEN ARI duzu, euskalkietarik hartuz eta... euskalkietan direnak oraino biltzeakoak ! Baduzu hor denentzat lana : euskalari bikainenetzat* edo, ni bezala eskola gutiko laborari sementzat. Kantuiak diozu : "tontoak ere zerbeit badaki" eta gure familietan kasik euskara hutsean haziak izan girenak, behar ginikezu dakiguna bildu eta idatzi. Zeren, ohartuia zitazke, oraiko gaztek (gehierek) ez dakitela fitsik gure lehenagoko bizi moldeaz, gertakariez. Ikus zonbat ahuldu den gure euskara. Orhoimena* galtzen badu gure herriak bere erroak dititzu galduko !

NEKEZIAK ETA DUDA-MUDAK

Ikus detzagun, nahi baduzu, lantto hunen egitean kausitu ditudan nekeziak. Lehenik Senperen bizitzea, heldu baita Beskoitzetik askitto urrun, bai eta ere bi herrietako euskararen nahasteko hirriska ! Gertatu zautazu ere, Beskoitzen berean bi molde aurkitzea... eta horietarik bat hautzatu behar taula* plantakoño batzu egitekotan segurik ! Halere, zonbeit aldiz, ipuruetan* bederen, eman dizut bertze molde bat, erakusteko - tauletakoa hobea (erregularrago delakotz-edo) balin badaukat ere - ez dela bertze forma nehuntik ere gaitzesten*.

Zailtasunetarik bat «bait-», aditz aurritzki* edo osagaiarena :

- bait + zen → baitzen [bitzen]
- bait + du → baitu [bitu]

Beskoitzekotzat «beit-» zitakezun xuxenena : ene aitatxi zenak untsa ahozkatzen* zuena, gehienetan. Haatik gaur, ene iduriko, «bit-» gehiago dabilazu gure herrian. Azkenean, «bait-» eman dizut euskara idatzian* eta «bit-» euskara ahozkatuian*. Agian ez duzu gaizki hartuko : lantto hau dena - Beskoitzeko euskaraz den guzia - entseiu bat baita eta ez behin betikotz finkatuiak litazken ikus-molde eta idatz molde batzuen bilduma.

Nola behar ziren DEITU gauzak eta elgarretarik BEHEXI ? Eseiatsu nuzu gauzen izendatzerat, ahalik eta xinplenerat. Batzuietan, ene burutarik, hala nola : LEIHOA, BIHURGARRIA*, ELEKETARAKOA*, eta bertze zonbeit. Bainan izendatze horietan ez nuzu beti gramatikaz axolatu, nornahirenganik konpreningarria izaitea baitzen ene kezka* edo arrangura, lantto huntan guzian. Ikus beraz, argitasunak, horien guzien barnatzeko, gramatiketan.

Bertzalde, nola behar zen idatzi, bereziki euskara ahozkatuia*? Biziki zaila zuzun hautzatzea. Beharko zitazketzun hortakotz erabili seinale eta puntuazione bereziak, hizkuntzalariek baizik ezagutzen ez

dituztenak : bokalen* akzentak, alfabetu fonetikoa eta holakoak. Nahiago ukantzen dizut NOR NAHIK irakurtzeko gisan jokatu, aldaketa* nabarienak* baizik ez aipatuz. Jadanik erran bezala : IDATZIA eta AHOZKATUIA* behexi behar zirelarik, makoen [...] ahoan eman dizut euskara ahozkatua*. Salbu hundarreko IXTORIO LABURRETAN : han, bakotxari sail bedera eman baitakotet. Ikus 124 - 127 hostoetan.

GURE HIZKUNTZA FINKATZEKO

Sar giten doi-doia euskararen auzi hortan. Zoin dire gure mintzairaren beharrak ? Bi andanetan eman nitiotzu. Lehenik HITZ BERRIEN beharra, gaurko biziak eskatzen dituen hek. Hortakotz ditutzu euskalkiak errotik ikertu behar : hitz berriak sortu aitzin behar baita ikusi hitz zaharretan ba ote den oraineko erran-beharren adierazteko ere gisa litakenik. Bigarrenekorik, BATASUN beharra ; eta huna euskararen batasunari buruz ikusten ditudan nekezia batzu, larri-larria :

1) Hiztegi desbardina :

— leku EDO toki — madari EDO udare — izari EDO neurri
— ergi EDO zekor — osagarri EDO osasun — goha EDO sapa
— aratxe EDO xahal — estakuru EDO aitzaki — emeki EDO baratxe
— eihera EDO errota — ele EDO solas — jin EDO etorri, eta abar.

Egin behar dena duzu : hitz horieri bakotxari bere «eremuia» finkatu ; baztertzen den bertze hitza, frangotan, ez duzu batere galduko bainan bertze «eremu» batetarako baliatuko. Adibidez*, fotokopiatzerat heldu zauztalarik eta «les deux FACES» behar dituztela erraiteko, huna zer aditzen dutan :

- Beskoitzarrak nahiko dititzu.....> «bi ALDERDIAK»
- Senpertar batek.....> «bi ALDEAK» [bi aldiak]
- Arnegitar batek.....> «bi ESKUALDEAK» [bi eskualdiak]

Kasu hortan, «les deux FACES» itzultzeko, BAT hautzatu behar dela, horra, zer erran nahi dutan ; bertze biak, erran dena, ez ditutzu galduko : bertze zerbeiten adierazteko behar beharrezkoak baitire !

2) Hitz berak bainan ordena desbardinean :

- nor ere baita [nor-ee bita] (Beskoitzen)
- nor baita ere [nor baita-ree] (Senperen)

3) Hitz berak bainan erran nahi edo indar desbardina :

- urratu : Beskoitzen = déchirer
Senperen = défaire
- «ZU» erraitea bere haurreri, Senperen arrunt hedatuia duzu eta, iduriz, aspalditik. Beskoitzen aldiz EZINEZKO : ZU-ka mintzatzen baita bakarrik zaharragokoeri - zor dakotegun errespetuia erakusteko - ez-ezaguneri, beskoitztar berrieri. Ikus 58\$. Ohar giten ere Senpereko ZU-kakoak eta Beskoitzeko ZU-kakoak ez dituztela batere ondorio berak. Ikus 57\$.

Hots, lehenbizio bi sailetan molde bakar bat hautzatzea askitto erretxa izanen dela daukazut; hirugarren hortan, haatik, biziki zaila izanen duzu auzia xuritzea, euskaldun zaharrekin ezinezkoa...

Aipatu daitzut gure hizkuntzaren batasun beharra : euskara desbardina dela, ez dugua aski aldiz aditzen ! Halere nahi naitzuke erakutsi ahozkatze* desbardin baten azpian diren BARDINTASUNAK ere :

Beskoitzen	gire [gie]
Senperen	gare [gaa]
Gipuzkoan	gera [gea]
Baxenabarren	gira [gia]
Beskoitzen	dizugu [dizuu]
Oztibarren	dizigu [dizi]
Xuberon	dizügü
Beskoitzen	dut
Bizkaian	dot
Gipuzkoan	det
Xuberon	düt

Ikus dezakezugu sahetseko taula huntan "josgailu" desbardinak, bainan "nor-ki ezaugarriak" ber berak ditugula :

g- = NOR (gu)

d- = NOR (hura)

-gu = NORK (guk)

-t = NORK (nik)

-z- = (ZU-karia)

BEHARREN BEHARRENA : ALFABETATZEA

Batzuek uste dizie «dut» diotellarik, ZU-ka mintzo direla. Ez, «dut»ek ez dizu MINTZALAGUNA kondutan hartzen ; «dizut»ek bai ordean, hura baita egiazko ZU-karia. Garazin, Oztibarren eta bertze zonbeit lekutan «dizit» ahozkatzen* dutena. Hain xuxen delako «dizut» horrek nizu, hastapenean, atxiki euskara batuari hotz ; ez niozun onart hain untsa ezagutzen nuen «dizut» (nik hura, ZU-ka) bertzalde daukagun «daitzut» (nik zuri hura) delakoaren adierazlea izan zadin ! Ezin onetsia nizun ! Bainan euskaraz alfabetatzeak eta ene lehen ikerketek*, laster ohartarazi nititzien adizkera* frangok, adiera* bat gehiago ukana zezaketela, Beskoitzen ere. Huna batzu, BIZPALAU adierekin (erlatiboak bertzalde) :

- | | |
|---------------------------------|--------------------------------|
| 1) [zakon] = zion | [zakoten] = zien |
| 2) [za(n)kon] = zittaion | [za(n)koten] = zitzaien |
| 3) [zakon] = iezaion | [zakoten] = iezaien |
| 4) [zakon] = zaion (zaio NO-ka) | [zakoten] = zaien (zaie NO-ka) |

Ikus ere ahozkatzean* homofonotzen ditugunak :

- (harek gu) gintuen ETA (guk hek) ginituen → [gintiin]
- (harek zu) dintuen ETA (zuk hek) zinituen → [zintiin] (Ikus 75\$)

Bertzalde, ELEKETARAKO* adizkerek* frangotan, eta ez bakarrik Beskoitzen, dudazko adierak ere sortzen dititzie ; nahiz solas ingurumenak* behexten dituen ; adibidez*, Manexek dio Ganixi :

- "gaizki egina DUK etxe hori" (ahozkatzea* eta hitzak zoin zoinen ondotik emaiten diren kondutan hartu gabe) Erranaldi horrek bi gauza adierazten ahal dituela ikusten dukezu aise :

- 1) (Norbaiten faltaz) gaizki egina DA etxea (TO-ka)
- 2) (edo HIK Ganix) gaizki egina DUK etxea

Beraz, lehenbizio kasuia delarik, Ganixek ez badu deus ikustekorik delako etxearen eraikuntzan* edo neholako dudarik ez bada nehuntik ere sendiarazi nahi, Manex beskoiztarrak bizpahiru molde badititzu erranaldia itzulikatzeko :

- edo BAIT-ekin : gaizki egina BAITA etxe hori [gaizki inaaita etxe hori]
- edo -LA-rekin : gaizki egina DELA (bai) etxe hori [gaizki ina-ela (bai) etxe hori]
- edo laguntzailerik gabe : gaizki egina... etxe hori [gaizki ina... etxe hori]

Horra zertako ere, ene ustez, bihurtzen* dugun :

- aipatza aski da → aipatza aski dik (ETA EZ : «aipatza aski duk»)
- jakin behar da → jakin behar dik (ETA EZ : «jakin behar duk»)

Azken bi adibide* horik bezalako salbuespen bakar batzu izana gatik, orokorki, gain gainetik errespetatzen dizugu eleketarako* erregela. Bertzalde, adibide* horietan «hura» nor-kiarekin gintutzun eta bistan dena bertzalde erran dezakègula:
■ «aipatza aski duk» eta «jakin behar duk», «hik-hura» sendiarazteko.
■ «aipatza aski dik» «harek-hura TO-ka», adierazi nahi dugularik.

Gisa berean, «ikusi DU» ez dizugu sekulan erranen. Bizpahiru presuna aitzinean ditutzularik, xuxenez, ez duzu ELEKETARAKO* forma erabili behar, presuna bakar bati buruz itzulia baita. Bainan, orduian ere, hunelako zerbeitekin ordainduko dizugu :

- «ikusi BAITU» [ikusi bitu] edo «ikusi DUELA bai» [ikusi diila, bai]

Hots, beskoitztar batek beskoitztar batekin mintzatzen denean ez dizu SEKULAN erranen «hor NIZ», bainan bai : hor NUK, NUN, NUZU edo NUXU, usaian MINTZALAGUN horrekin erabiltzen duen forma. «NIZ» forma hori, aldiz, erabiliko dizu aurrizki* edo atzizkiekin*: (Ikus ere 64§ 65§)

- hor bainIZ [hor biniz].....> Je suis là / Parce que je suis là, etc...
- hor baNIZ.....> Si je suis là (BALDINTZA*)
- hor NIZen aldi guziez.....> Chaque fois que je suis là
- hor NIZen.....> Tant que je suis là / Tant que je serai là
- hor NIZenaz geroz [hor nizenaz gioz] > Puisque je suis là
- hor NIZenetz jakiteko.....> Pour savoir si je suis là
- hor NIZela jakin dezan.....> Pour qu'il sache que je suis là
- hor NIZelarik [hor nizelaaiak].....> Lorsque je suis là
- hor NIZelarikan [hor nizelaikan].....> Lorsque je suis là (et sous entendu que...?)
- hor NIZelakotz.....> Parce que je suis là
- hor NIZelako marka.....> Signe indiquant que je suis là
- hor NIZelakoan [hor nizelakun].....> Je suis là et c'est un bon prétexte pour...
- hor NIZa ?.....> Est-ce que j'y suis (sur cette photo, par ex)

Ikus ere usaiako DEKLINABIDEA : hor NIZen — hor NIZenak — hor NIZenean [hor NIZenin] — hor NIZenetan — hor NIZeneko, eta abar. Ikus 65§

SALBUESPENA: nun NIZ ? (Où suis-je ?) Ikus atzizki* aurrizkirik* gabe johan diren GALDAKARIAK eta bertze batzu : 72§ eta 73§

Ikusten duzu ondorioz, adizkera* osagai diren «bait-» eta «-la» aurrizki-atzizkien sartzeko usaia handia dugula Beskoitzen. Bainan kasu, hori, herritarren artean girenean bereziki ; kanpotar bati mintzatzeko badakizugu gero, NIZ, DA, DUT, DAKIT eta bertze forma neutroak erabiltzen, gehienek segurik ! Ze uste duzu...

Dena den, eta nola euskara bardin baten beharra betitik senditu baitut, laster egin nizun EUSKALTZAINDIKO* gizon zuhur bezain jakintsunek hartu bidea zitakela hoberena geroari buruz eta euskara batuaren laguntzaile bilakatu nintutzun errotik : euskaldun guziek elgar konpreni dezaten osoki eta goi mailetako eskoletan diren gaztentzat bereziki. Haatik, gazte horiek on luketelarik ere, zerbait ikas balezate herrietako mintzairetaz, denek elgar hobeki har dezagun.

Beraz, beharrena - eta ez duguna aski usu aipatzen - sortzez euskaldun direnen alfabetatzea. Denbora libroak eta adineko jendeak emendatzen ari zauzkun hantan ez litakeia sail horri artoski* apailatu behar ?

AHOZKATZETIK* IDAZTERAKO BIDEA

"EUSKARA EZ DAKIENAK IKAS ETA DAKIENAK IRAKATS", bainan holako xede onerat nola hel, euskara dakitenak alfabetatzekoak balin badire ? Hor segurik lot gitazketzu, gostuian, euskalkietarik. Lehen-bai-lehen, ikaslea ohartaraziz, hurbilagotik, gure kantu ederrek, pastoralek eta etxeko mintza moldek dauzkaten aberastasuneri.

Euskal Herria berriz euskalduntzko adinekoeri ere pentsatu beharko dizugu eta euskarazko irakaskuntzari esku eman : alabainan, gure gaztek eskolatik jalitzean, ingurumen* guzia erdalduna* balin badute nola iraun dezakete euskaldun, nahi bezainbat euskaraz eskolatuiak izanik ere ?

Euskalkien elgarri hurbiltzen ari behar dugula... Beskoitzrentzat segurik ez ukan beldurrik : gu, berdin beharrik gabe, lerratzen baigire bertzen euskalkietarat, behar bada guhonek ez dugulakotz gure herriko hizkuntza aski ezagutzen... AHOZKATUIAREN* ETA IDATZIAREN ARTEKO BIDEA ez baita beti erretx egitea. Hain uxen, ene lantto koekor hunek, bide hortako nekezia zonbeitño gainditzen lagundu nahi likezu. Nik segurik, 1960 inguruian euskaraz poxiño bat idazten hasi nintzelarik, xehetasun hauk eskuian ukan banitu baliatuko nititzun, ez guti !

Bertzalde "euskaldun berriak" eta "beskoitztar berriak" ez litazkeia lagundu behar herriko euskararen osoki konprenitzen ?

LARRI LARRIA BEHATUZ

Beskoitzeko euskara, Mugerrekoa eta Urketakoa, "familia" berekoak ditutzu, elgarri hurbilenak. Gure euskara heintto bat berezia dela erran ditakezu eta hitz jale handia, nahiz ez den bakarra !

Beha dezagun «bertze» delakoari, [beze] ahozkatzen* baitugu. Laster ohartu nintutzun ahozkatze* berezia ginuela hori, nahiz logikoa den Beskoitzeko xixteman ! Orhoitzen nuzu, BERTZETAN, BERTZETIK, BERTZETAKO eta holako formak, aditzen nituelarik BERTZA-ren (le chaudron) deklinabideari pentsarazten zautatela ! «Beste» ere maiteago nizun «bertze» baino ! Geroztik, "urak egin dizu bide"... Ikus ere «e» eta «o»-z bururatzen diren hitzen INESIBO motza ! (Ikus 35§ 36§)

Salbuespen* batzu artetan : hala nola «BATETAN» biziki untsa erraiten duguna... Nahiz galtzen hasia den poxi bat lapurtarbaxenabartar gehienen eraginaz*; heiek «BATEAN» [batian] erabiltzen baitute. Aldiz, xuberotar askok, guk bezalatsu diozie :

■ [etxe zahar BATETAN bizi beitzen].

Bertzalde guk : batean hau eta bertzean hura [batin hau eta bezin hua]

Denen artetik EGON eta IBILI aditz jokoak bitxiak dititzugu pluralgilearen aldetik. Jokabide berezia agertzen zauku zu hor : plurala «it»-rekin eginez hitzaren hastapenean, biziki ederki plantatzen baitzauzu, alabainan, ELEKETARAKO* molden hartzeko... hitzaren bertze buruian ! Nor da harritu ? Nihone lehen lehenik, denak lerro lerro eman ditudanean ! Ikus, 105-107 hostoetan. Bainan erran behar ere, aditz joko horik biziki ahulduiak direla eta gero eta gehiago "laguntzaileak" erabiltzen ditugula. Denik ere, IRAGANA azkarrago dagozu eta IRAGANAREN barnean, ELEKETARAKO* saila BIHURGARRIA* saila baino.

Norbeitek pentsatuko dizu behar bada IRAGANEAN singularrek «inD» (ninDabilaian) behar lukeletela eta pluralek «inT» (ginTabilaian). Bizkitartean, Beskoitzen denetan «T» kausitzeak ez nizu ondorik harritzen : singularra pluralaren morfologiak kutsatzea ez baita lehen aldia (ikus 82\$) eta gero, eskolan erakatsia ez den hiztegia ez baitut uste hein hortainoko perfekzionerat hel ditaken... Dena den, iduritzen zautazu, haatik, egia erran, idaztean hobe ginukela «dabiltza» erabiltzea ezenez-eta «ditabila».

Aitortuko daitzut ere, ene gazte denbora guzian aise ederrago naukalarik, eman dezagun Sarako euskara, lantto hau egin dutanean, geroago eta maitagarriago agertu zautala, Iturrealdean (sor etxean), Beskoitzen (sor herrian), mintzatu dutan hizkuntza. Zaharra, behar bada, bainan ez zahar okitura ! Bere indar eta ahuleziekin segur... Halere, ene gostuko, axalez ez bada, mamiz bederen, nehunkoeri zorrik ez duena ! Bertzeak bertze, beha zoin polliki erabiltzen dugun :

— jauzi	ETA EZ salto	— iparra	ETA EZ nortia
— bardin	ETA EZ igual	— lutsagarrta	ETA EZ patata
— jadanik	ETA EZ deia	— goratasun	ETA EZ haltura
— aurdiki	ETA EZ bota	— itzilikatu	ETA EZ biratu
— higitu (bouger)	ETA EZ mugitu ([mo-imendu] Beskoitzen = mouvement), etabar		

Halere, hiztegia biziki ahuldu zako zu, azken gerlez gerotzik ; denetan bezala, funtsean. Adizkera* frango galdu dititzu : nori-dunak eta trinkoak bereziki. Harritzeko ez deia halere, nola iraun duen euskarak orai artino, mintzaira bat biziarratzet duten tresnetarik : eskola, irratia, kazeta eta holakorik, bihirik ukana gabe ?

Lapurdikoa izana gatik, Baxenabartar hizkuntzaren eitea ere badizu, Beskoitzekoak ; Xuberotarrek bezalako molde batzu ere baditugularik, ahozkatze* eta soinu desbardinekin haatik ! Adibidez* :

- Xuberon : [e-txe-ku-a] (lau silaba)
- Beskoitzen : [e-txe-kua] (hiru silaba, «ua» diptongatzen* baita)

Hiru euskalkien erditan ote da gure hizkuntza ? Huna, LARRI-LARRIA, konparaketa batzu (baditakezu hoberik ere baden) :

Beskoitzen :	
■ horrenTZAT →	Lapurdin ere (Baxenabarren, Xuberon : horrenDAKO)
■ ardieRI →	Lapurdin ere (Baxenabarren, Xuberon : ardieR)
■ zakOTE →	Lapurdin ere zaiOTE (Baxenabarren : zeE ; Xuberon : zaiE)
■ ZAKO →	Baxenabarren ere (Lapurdin eta Xuberon : zaiO)
■ bidin →	Xubero pettarrean ere (Lapurdin, Baxenabarren : [bidian])
■ kanpun →	Xubero pettarrean ere (Lapurdin, Baxenabarren : [kanpuan])
■ dizie →	Xuberon eta Baxenabarre ekialdean ere (= «dute» ZU-ka)
■ munduia →	Urketan, Arbonan, Arrangoitzen ere, bertzeak bertze, bai eta B. DETCHEPARE lehen euskal idazlearen lanetan.

BATASUNA EUSKARAREN INGURUIAN

Irakurtzaile maitea, agian ez zitut soberarik nardatu ! Zutarik ahalik eta hurbilenik egon nahiz, idatzi aitzin, hitzak AHOTIK pasatuz, arizan nuzu. Halere R/B/D/G/E/RE/DI/RA/AGO andana bat sartu dizut, ahozkatzean* galtzen edo aldatzten direnak, bainan hemen nehuntik ere ez nitionak bazter edo kanbia euskara idatziaren kolpatzeko hirriskuia hartu gabe ! Ikusatzu beraz, artoski*, AHOZKATZEA kapituluian eman xehetasunak.

Mintzatzen naitzu ahal bezin garbiki ; Beskoitzarra balin bazire, agian ezagutuko duzu gure hizkuntzatik zerbeit ; diozut "zerbeit" zeren-eta hartu baititut gure herrikoak ez diren hitz batzu ere, bertzek ere hola-hola egiten dutelakoan, bakotxak bere euskalkia osatu beharrean gertatzen delarik ! Bertzalde, Jainkoak nahi badu, bertze lantto batetan, gure herriko erraiteko moldeak, zonbeit bederen, bildu nahi nizketzu, HASIAN HASI...

Beskoitzarra ? Ez duzu beraz, hemen, gauza handirik ikasi edo ikasiko. Ikusiko ditutzunak, Beskoitzeko hitz batzu, mila aldiz adituak duzketzunak, bainan, behar bada, zure baitarik izkiriaturu ez zinituenak. Bai izkiriaturu behar ginikezu gehiago euskaraz, haurreri, adixkideri, ahaideri ; bardin laneko delarik ere.

Ez litakezu afera bat gero ! Bitxi egin lezakela ? Agian ez duzu holakorik pentsatu : bitxikeria ez litakeia izaitekotz, buruz buruian, euskaraz mintza gintazken bati, izkiriaturu beharrean gertatuta, erdaraz has baginte ? Ez litakeia hori bitxikeria handiagokoa ?

Funtsean ez duzu dena gure falta : eskolan ukan erakaspenak, euskaraz eman balauzkute, ez ginikezun gaur nekeziarik aurkituko izkiriaturean ! Eta ene ustez, zonbeitek, ikasi duten baino gehixago ere ikasiko zizien...

Ez nuzu gero frantsesaren kontrakoa, hurbiltzekorik ere ! Bainan zer astokeria ez zen, gure haur denboretan, euskaraz hainbertze gauza berehala ikasten ahalko ginuelarik, frantsesa saka ahala saka artzen baitziren, euskara ahantzará eta gutiotsarazi beharrez, hartaz baliatzeko orde guri konpreniarazteko !

Dena den eta horik oro ezin ahantziak direlarik, agian herritar guziek lagunduko dizie gure arbasoen hizkuntza zaharra bizitzen - euskara DENENA baita ! - eta ere, bertzetik, botere zerbeit dutenek Parise handi hortan, orai artino egin duten baino gehixago lagunt balezate, ontsa egin lezakezie : Europako mintzaira zaharrenak, ez lukeia hoinbertze mehexi ? Holako bat ez duteia xahutzen balio gutiagoko ainitzentzat ?

ORAI IRAKURTZAILE, ZUK ZER DIOZUN...

Artean, Beskoitzeko hitz eta bereziki aditz parrasta bat - NAGUSI eta LAGUNTZAILE, bai eta TRINKO zonbeit ere - eskaintzen daizkitzut, ondoko hostoetan kokaturik. Ez dakizut den-denak, ez eta ere zenbatetaraino, erabiltzen diren gaur. Halere biziki bakan aditzen diren batzu eta gehiago dena, ene usteari jarraikiz ezarriak nituen zonbeit ere aipatzean, gisa huntako ihardespenak entzun dititzut : "Hori ez duk gehiago biziki aditzen, baina errotik Beskoitzekoa duk" [hoi eztuk gehioo biziki a-itzen, banan errotik Bezkoitzekua-uk]

Buruz buruian mintzatzean ez duzu idaztean bezain usu erabiltzen aditza. Mintzaira guzietan bezala, soinuiak, ixiltzek, zalutasunak, ozentasunak* edo eztitasunak eta bertze hainbertze gauzek egiten baitute osoki elgar konprenitzen dela eta erran nahiak sendiarazten !

Egia erran, ez dizut nekezia handiegirik ukan elgar konprenitzeko ipar Euskal Herri guzian kurritu ditudan 2.000 familietan. Bainan aditzaren sistema hori ez aski eskuian ukanez, zerbeiten eskasa senditzea gertatu zautazu frangotan norbeitii euskaraz izkiriaturean edo artikulu bat egitean. Aditza baita perpausaren* gakoa.

Dena den, jakin zazu lantto huntaz zure iritzia* ere gogotik har nezakela ! Ez izanik ere ikus molde bereko, zertako ez mintza elgarrekin euskararen gora-beherez, ahalaz bide sano eta iraunkorrik hatxemaiteko geroari buruz gure mintzairak azkartzeko : baitu beharra !

LAGUNDU NUTENERI MILESKER

Lerro hauk bururatzean, eskerrak bihurtu nahi dazkotziet lagundu nuten guzieri : behin edo biretan izan bainintazkoten ikusten, beti ongi-etorririk hoherena egiten zautatela. Barka diezadatela, otoi, batzuietan nardatu balin baditut eta argi izan bedi lantto huntako hutsak, eskasak edo soberakinak ez direla heien gain eman behar :

- Marie-Louise PEYRELONGUE (sortzez MENDY).....1898an sortuia (1)
- Jean-Baptiste LARRE.....1899an sortuia (1)
- Noël MENDY.....1899an sortuia (1)
- Antoinette CAMINO (sortzez HIRIBERHONDE).....1914an sortuia
- Louis ITHURBIDE.....1924an sortuia
- Véronique HIRIGOYEN (sortzez ELISSALDE).....1928an sortuia
- Roger ELISSALDE.....1933an sortuia
- Lucien ITHURBIDE.....1942an sortuia

Ene ama eta anai'arrebak ere. Ahantzi gabe aita zena : nork erabili ote du Beskoitzeko euskara harek baino hobeki ? Nork maitatu gure herria, bizia eta lana, harek baino gehiago ? Ikus artio, aita !

Milesker handi bat zor dakozut ere Koldo ARTOLA Jaunari, ene lan guzia - hitzez hitz, burutik buru - irakurri baitu eta oharpen andana bat ere egin. Bertzalde ikus bidali dautan MENDIBOURE apezaren eskutitza (122. hostoa).

Nolaz ez aipa Aita LAFITTEren (1) aholku* guziz baliosak, biziki argitu nutenak eta guziek baino sustatu lanari jarraikitzerat. (Lau eleketaldi eta hiru gutun*. Ikus gutun heietarik bat 120. hostoa)

Bertze batzu oraino, ez izendaturik ere - nitarik hurbilegiak direlakotz - eskertu gabe ezin utziak. Saltegi bat elgarrekin kudeiatzen dizugu Senperen, eta ni lantto hantan leporaino sartua nintagon batzuiez, ene partea ere egin behar ukaitea gertatu izan baitzakote !

Azken hitz bezala - ederragokorik nekez kausi ditakelakotz - huna XALBADOR (2) bertsulariak, OTXALDE zenaren omenaldian (1964 Buruilkak 6) Beskoitzeri egin zakon agurra. Bertsuiaren lehen terroa ahantzia baitut, eian nork osatzen duen ?

XALBADOR :?

Eskualdun batek esperantza du zuk egin duzun jestuan
Zu kaskoinaren muga-mugetan hor galtzeko hirriskuan
Eskualdunaren omen guzia zuk deraukazu eskuan.

(1) Lan hau eginez geroztik zenduia.

(2) Badakikezu, artetik erraiteko, XALBADOR artzain egona zela Beskoitze Larremendian.

AHOZKATZEA*

1§ LANTTO HUNTAKO EUSKAL ALFABETUA

A
B
D
E = Le «é» français
F
G Toujours "dur"
H Toujours aspiré (1)
I
J = DD Voir 21§ «J»
K
L
M
N
Ñ Son du «GN» français, comme dans «gaGNer»
O
P
R ■ Doux: «buRu» ■ Dur : «uRRatu» ■ Dur : «oRga» ■ Dur : «hezuR»
S Son gras comme dans «oSagarría»
T
U = Le «OU» français
Ü = Le «U» français
X = Le «CH» français
Y Son proche du «LL» français, comme dans «famille» (2)
Z = Le «Ç» français

Les sóns :
■ DD LL TT
■ TS TX TZ

(1)Voir également 21§ : KH, LH, NH, PH, RH, TH

(2)Dans cet ouvrage, l'Y est utilisé surtout pour des transcriptions phonétiques.

2§ AHOZKO EUSKARA NOLA IDATZI ?

Irakurri dukezu zer dudak ukana ditudan ez jakinez nola idatzi euskara ahozkatua* delako [] makoena artean eman dutan hura. Hizkuntza bat aipatzean, molderik hoherena da mintzatzegitea, IDATZIAREN ondoan SOINUIA ere emanez. Hori izanen zen joko ona.

Bertzalde, NOR NAHIK irakurtzeko gisan nahi nuen egin. Hara zertako ere ez den hemen ikusiko fonetika-fonologian erabiltzen ohi den terminologiarik : zailegia baita gai horietan usatuia ez denarentzat (nihonetzat, lehen lehenik !)

Lantto huntan ikusiko dire bakarrik, dip-tongatzeak* / ez diptongatzeak, kontsonante* "jateak", bokale* "luzatzeak" eta holakoak, erdi-jateak eta erdi-luzatzeak aipatu gabe ! are gutiago bokalen* indarra seinalatzeko akzentak ! Ximpleenetik ariz ere, ez zen beti lan erretxa eta barkatuko ahal dautazu, irakurle, noiz edo noiz, marraño bat eman badut, birden bokale bat emaitea hobeko zitakelarik edo alderantziz*.

Irakurlea harrituko da ere, beharbada, kapitulu huntako bokale bikoitzen* zerrenda* luzea ikustean. Delako bokale luzatze hori seinalatzeko, xapel batekin idatzia izan da frangotan; adibidez*: [hartāik]. Nik, ordean, [hartaaik] idaztea hautzatu dut, bainan xehetasun hau emanez : bokale bikoitz* horik ELGARRI LOTURIK ahozkatzen direla, kasik bokale bakar bat balitz bezala, gehienetan bi soinu-mailekin, soinu-mail bakoitza ere -noiz nola- luzeago edo laburrago dohalarik.

Bokale luzatzeak bertzetan ere ; adibidez:

LITERARIOA	BESKOITZEKOA	SENPEREKOA
AMareNTZAT	AMaaNTZAT	AMaaINTZAT
MAITereNTZAT	MAITeeNTZAT	MAITeeINTZAT
AMATXireNTZAT	AMATXiintZAT	AMATXiintZAT
OTToreNTZAT	OTTooNTZAT	OTTooINTZAT
MARITXureNTZAT	MARITXuuNTZAT	MARITXuiNTZAT

OHAR OTOI : kapitulu huntan guzian, HITZAK, batzuetan MUGATUIAK direla (edo deklinabideko BIHURPEN* batetan). Kapitulu hau ez baita HIZTEGI bat, bainan, HITZ BATEK, MUGATUTA edo MUGATU GABE (BIHURTUTA edo BIHURTU GABE) ager dezaken aurpegiaren erakuslea.

Hitz batzu ahozkatzean*, noiz gehiago noiz gutiago, laburtzen ditugu ; bertze hitz batzu berriz, edozoin kasutan, beti bardin labur ahozkatzen* direlarik.

AHOZKATZEA* kapitulu huntan guzian, jatorrizko* hitza ezkerretarik eman dugu (gehienki) eta haren Beskoitzeko forma ahozkatua*, ukan dezaken molde motzenean, eskuinetarik makoen [] artean. Halere, makoen arteko asko idatz ditazke hola hola ere.

Jatorrizko* hitz erdarazko guziak uztai () artean ezarri ditugu ; bainan euskarazko batzu ere bai, ohar-arazteko diren bezala ez direla idatzi behar, bertze zerbeiten adiarazteko ez bada segurik.

3§ DIPTONGATZEAZ*

Huna euskal diptongoak* («i» eta «u»z bururatzen direnak beti):

- ai : aita, maite, gain, ezpain, eta abar.
- ei : eihera, sei, deitzi, eta abar.
- oi : oihan, oilo, oinez, eta abar.
- ui : fruitu, muin, ipuin, eskuin, eta abar.
- au : gau, gaur, lau, hau, haur, eta abar.
- eu : eutsi, zeukan, euskalduna, eta abar.

Gertakari arras ezaguna da euskaldunek "jaten" ditugula kontsonanteak mintzatzean eta ondorioz bi bokale* elgarri kentre gerta ditazkela ; hauk, batzuetan, diptongatzen* ere dire Beskoitzen :

- ari [ai] : haritza [haitza] eta abar.
- agi [ai] : hagina [haina] eta abar.
- egi [ei] : begiratu [beiratu] eta abar.
- ori [oi] : horik [hoik] eta abar.
- agu [au] : nagusi [nausi] eta abar.
- egu [eu] : eguna [euna] eta abar.

Bertze batzuetan aldiz, kontsonante* baten jatearen ondorioz hurbildu diren bi bokaleak* ez dire diptongatzen. Kasu huntan, ahal bezala arizan niz : batzuetan marratto batekin, bokale luzatzerik ez zela iduritu zautanean ; bertzetan, birden bokale bat ezarriz :

- adi [a-i] : aditzen [a-itzen] eta abar.
- ari [aa-i] : hartarik [chartaaik] eta abar.
- edi [e-i] : obeditu [obe-itu] eta abar.
- egi [ee-i] : arditegia [arditeeia] eta abar.
- ogi [o-i] : mogimendu [mo-imendu] eta abar.
- adu [a-u] : esnaduna [esna-una] eta abar.
- agu [a-u] : laguna [la-una] eta abar.
- aru [a-u] : larunbata [la-unbata] eta abar.
- egu [e-u] : egurra [e-urra] eta abar. (Ikus 30-31. hostoetan)

Ahozkatzeak* eragin* bertze diptongo* batzu :

- ea [ia] : etxea [etxia], eta abar. (Ikus DEKLINABIDEA 35\$)
- oa [ua] : oiloa [oilua], eta abar. (Ikus DEKLINABIDEA 36\$)
- oe [ue] : oiloen [oiluen], eta abar. (Ikus DEKLINABIDEA 36\$)
- [ua] : joan [juan], Joanes [Juanes], joare [juare], eskualde, heskuara, eguerdi [eguardi], egon hadi [eguadi]
- [ue] : partzuer [pazuer]
- [üi] : joaiten [jüiten], oihu egiten [oihüiten]

4§ BOKALE* GALKORRAK

a.....	NaIZ ZaITUT ZOaZTE ZOaZI BaITZEN AHaIDE MAHaI APaINDU BEZaINBAT LUKaINKA aHAMEN PUSATU PASATU LAXATU (DEaBRU) (GOaNO) (JOaKIN) (JOaN) (LOaK+HARTU) IZaITEKOTZ Bainan: IZaN UKaITEKOTZ Bainan: UKaN (H)ATZEMAITEN Bainan: (H)ATZEMaN Bainan:..... Bainan: ANAIA BAT Bainan: GAUZA RIK Bainan: PILOTaRIK Bainan: DENBORaRIK	[NIZ].....(Ikus ADITZA 57. hostoa) [ZITUT].....(Ikus ADITZA 67. hostoa) [ZOZTE].....(Ikus ADITZA 107. hostoa) [ZOZI].....(Ikus ADITZA 107. hostoa) [BITZEN] [AHIDE] [MAHI] [APHINDU] [BEZINBAT] [LUKINKA].....Saucisse [HAMEN].....Bouchée [PUS(a)TU] [PAS(a)TU] [LAX(a)TU] [DEBRU] [BONO].....Engrais chimique [JOKIN].....(Izen ttipia) [JON].....(Izen ttipia) [LOKHARTU] [IZITEKOTZ] [IZaN] [UKHITEKOTZ] [UKHaN] [HATXEMITEN] [HATXEMaN] [USAINA].....(eta ez «USINA») [ANEIa BAT].....(eta ez «anei bat») [GAUZA AIK].....(eta ez «GAUZIK») [PILOTaAIK].....(eta ez «PILOTIK») [DENBORaAIK].....(eta ez «DENBORIK»)
e.....	HAUETAN HORIEtan HONeTAN BI ORENeTAN (PALeTOT) (MOeTA) GEREZiETA HARRIEtAKO BORDA Bainan: HARRIEtA	[HAUTAN].....(Ikus ERAKUSLEAK 37\$) [HOITAN].....(Ikus ERAKUSLEAK 37\$) [HUNTAN].....(Ikus ERAKUSLEAK 37\$) [BI OONTAN]... (Ikus ERAKUSLEAK 37\$) [PALTO].....Veste [MOTA] [GEHEZITA].....(Etxe izena) [HARRITAKO BORDA].....(Etxe izena) [HARRIEtA].....(Etxe izena)
i.....	EGUNDAINOTIK HAINBAT HOBE ! EZ DUK HAINBATEKOa BURUILA URGUILU AKUILO EIKI BADA BELAUNIKO JAIKI HADI -TZaILE guziak LAGUNTZAILE	[EUNDANOTIK] [HANBAT HOBE !].....Tant mieux! [EZTUK HANBATEKUA] Il n'est pas fameux [BUULA] [URGULU] [AKHULO] [EKI BAA].....Alta bada [BELHAUNKO] [JEIKHADI] [-TZALE] ahozkatzen* ditugu: [LA-UNTZALE] eta abar.

BAINO	[BANOO]
BAINA(N)	[BANA(N)]
Bainan: ALABAiNAN	[ALAAiNAN]
ORKAITZA	[ORKHATZA BEZIN ZIKHINA !]
Bainan: ZURKAiTZA	[ZURKHAITZA]
Bainan:.....	[ARRAINTZAN] (eta ez «ARRANTZAN»)
o.....ToROXAK	[TROXAK].....Langes
OHAR: e.....HORReTAN	[HORTAN].....(Ikus ERAKUSLEAK 37\$)
OHAR: ARReDAILAK	[ARDAILAK] Les regains (recoupe de foin)
OHAR: ERRePIRA	[ERPIA].....Barthe (prairie inondable)
OHAR: ARReTA(Hegoaldean)	[ARTHA]
OHAR: ERReTOR	[ERTOR]
OHAR: BARReNEAN	[BARNIN]
OHAR: (LARRe+ZABAL)	[LARTZABAL].....(Deitura)
OHAR: ZER TENORe DA ?	[ZE TENOR DA ?].....Quel heure est-il ?
OHAR: i.....URTARRILA	[URTHARLA].....Janvier
OHAR: AGORRiLA	[AORLA].....Août
OHAR: (BEHARRi+ONDOKO)	[BEHARRONDOKO].....Grande gifle
OHAR: (ITURRI+BURUA)	[ITHURBURUIA].....(Etxe izena)
OHAR: (ITURRI+BIDEA)	[ITHURBIDIA].....(Etxe izena)
OHAR: (ITURRI+ALDEA)	[ITHURRALDIA].....(Etxe izena)
OHAR: (ERhi+Aztun)	[ERHAZTUN].....Bague
OHAR: LANEAN ARiTZEN	[LANIN ARTZEN]
OHAR: o.....(TORoNAT)(béarnais)	[THORNATUIA].....Le plafond/plancher
OHAR: u.....ZURuBI	[ZURBI]
OHAR: KURuTXETA	[KURTXETA].....(Etxe izena)
OHAR: (BURRu+ZORATU)	[BURTZOAATU] edo [BURTXOAATU]
OHAR: ZURRUminoAK	[SURMINUK].....Rougeole
Bainan: (PaRPAING)	[PaRRaPIN].....(eta ez «parpin»)
Bainan: (Sarment)	[XIRRiMENDU].....(eta ez «xirmendu»)

5§ DIPTONGO* GALKORRAK

ai.....ERRaitEN	[ERTEN]
oi.....ARRoILA	[ARLA]

6§ KONTSONANTE* GALKORRAK

b.....IBILI	[IILI].....(Ikus ADITZA 107. hostoan)
SUBURDIN	[SUURDIN].....Chenet
AbANTAIL	[AANTAIL]
AbANTZU / AbANTXU	[AANTZU / AANTXU]
BIZAR NabALA	[BIZAR NAALA].....Rasoir
ALABAINAN	[ALAAiNAN]
BAbaZUZA	[BAAZUZA].....Grêle
OIHARTZaALEKOBOARDA	[OIHARTZAALEKOBOARDA].....(Etxe izena)
GIbELA	[GIELA].....L'arrière / Le foie
(BRabANT)	[BRAANA]
(DAbAINTAIL)(roman)	[DAANTAL].....Tablier
UDAKAbILA	[UDAKHAAILA].....(udazkena)

hik(n)		notzin	
zuk			
xuk			
zuek			

BESKOITZEKO ADITZ* TRINKOAK*(5)	
igorr-	ak
ekarr-	
(1) ibil-	an
em-	
utz-	azu
erakuts-	
eros-	axu
hurbil-	
bil-	azii
jal-	
hill-	atzik
itzul-	
err-	atzin
harr-	
agerr-	atzu
ixur-	
hauts-	atxu
jos-	
nahas-	atzii

ADITZA : OHARPEN OROKORRAK (segida)

79\$ "ZUEK" nor-ki edo IZEN ORDAINAREN ezaugarriak, «nork» saileko adizkera transitiboetan :

ORAINEAN [-zii] : duzue → [duzii]

Baxenabarren, berriz askok : ORAINEAN [-zie] : duzue → [duzie]

80\$ Beskoitzeko [-zii] hola hola untsa duzu, [-zie] hori ZU-kakoarentzat uzteko:

	HURA	HARI	HEIEK
BIHURGARRIA	da	ko	te
ZU-ka	da	ko	zi e

■ Iduri luke, gure arbasoak, entseiatu direla beti gauzen behexterat, nolazpeit, hitzez ez bada ahozkatzearen bitartez. Analogietarat lerratai badire, horrek ez zuen hitzaren PARTE bat baizik kutsatzen.

81\$ Urrundu gabe erran behar dut ere, ZU. PLURALA gelditu dela adizkerari buruz, bainan SINGULARRA bezala akordatzenten dela. Adibidez :

- hi hitake (S) hortako gisena (S)
- gu gitazke(P) hortako gisenak(P)

BAINAN :

- zu zitaZke(P) hortako gisena (S)

82\$ Hain xuxen, huts batzu sor arazi dituzke aldakuntza horrek :

ERRAITEN BAITA BATZUIETAN	HUNEK KUTSATURIK	HAU BEHAR LITAKELARIK BESKOITZEKO
hitu	zitu	hu
hitut	zitut	hut
hituzte	zituzte	hute
ehitela	etzitela	ehadila
hitadin	zitadin	hadin

Ikus HITZEK ETA FORMA BATZUIEK ERE ELGAR KUTSATZEN 14\$.

Ikus ere AHOZKATZEA.

(Segida 117. hostoan)

IGORRI		NORK	NORI	NOR	ADITZ* TRINKO* B A T U A K*	
EKARRI		hik(m) hik(n) zuk xuk zuek	eni	hura	igorda- ekarda- erabilda- emada- utz- erakusta- erosta-	k n zu zue
ERABILI / IBILI (1)						
EMAN						
UTZI						
ERAKUTSI						
EROSI						
eta bertze aditz batzuen LEIHO ZATIAK						
(INPERATIBOA) (Ikus BIHURPENAK 54\$)						
Ahozkatzean, halako «a» luze bat :						
■ ematak [emaatak] ■ igorratak [iorraatak]						
■ ekarratak [ekhaatak] Bainan : ■ ekarrakok [ekharrakok]						
Beskoitzen erraiten da :						
■ [emakozu] (TRINKOA*) Bainan : ■ [etzakozula eman] (LAGUNTZAILEDUNA*)						
Bertze hainitz herrian bezala «ERAMAN» aditz ezaguna ez dugu batera erabiltzen, nahiz arras ontsa konprentzen dugun; «JOAN»ekin ordaintzen dugu :						
■ [juazak] = eramak						
«hiri» «zuri» «xuri» eta «zieri»-ri buruzko INPERATIBO trinkorik* ez dugu hatxeman BESKOITZEN. «guri»-rekilakoak "ontzat" eman dauzate, bainan ez dakit egiazki erabiltzen direnak.						
(1) Beskoitzen, ibili = 1) ibili 2) erabili						
(2) Edo bederen trinko* bezala erabiltzen direnak.						

						BESKOITZEKO ADITZ* TRINKOAK*(2)
hik(m) hik(n) zuk xuk zuek	eni	hura	igorda- ekarda- erabilda- emada- utz- erakusta- erosta-	k n zu zue	igorr- ekarr- (1)ibil- em- utz- erakuts- eros-	atak atan atazu ataxu atazii
hik(m) hik(n) zuk xuk zuek	hari		igorri- ekarri- erabilio- emaio- utzio- erakutsio- erosio-	k n zu zue	hurbil- bil-	akok akon akozu akozu akozii
hik(m) hik(n) zuk xuk zuek	guri		igorgu- ekargu- erabilgu- emagu- uzku- erakusk- erosku-	k n zu zue	jal- hil-	aukuk aukun aukuzu aukuxu aukuzii
hik(m) hik(n) zuk xuk zuek	heieri		igorrie- ekarrie- erabilie- emaie- utzie- erakutsie- erosie-	k n zu zue	itzul- err- harr- agerr-	akotek akoten akozute akoxute akoziite
hik(m) hik(n) zuk xuk zuek	eni	hek	igorzkida- ekarzkida- erabilzkida- emazkida- utzazkida- erakutsazkida- erosazkida-	k n zu zue	ixur- hauts- jauts- jos- nahas-	aztak aztan aztatzu aztatxu aztatzii
hik(m) hik(n) zuk xuk zuek	hari		igorzki- ekarzki- erabilzki- emazkio- utzazkio- erakutsazkio- erosazkio-	k n zu zue	motz- haz- ken-	azko(tzi)k azkon azkotzu azkotxu azkotzii
hik(m) hik(n) zuk xuk zuek	guri		igorzigu- ekarzigu- erabilzigu- emazkigu- utzazkigu- erakutsazkigu- erosazkigu-	k n zu zue		auzkuk auzkun auzkutzu auzkutxu auzkutzii
hik(m) hik(n) zuk xuk zuek	heieri		igorzkie- ekarzkie- erabilzkie- emazkie- utzazkie- erakutsazkie- erosazkie-	k n zu zue		azkotek azkoten azkotzute azkotxute azkotzii

ADITZA : OHARPEN OROKORRAK (segida)

83§ "Hi hor habila" (EDO habil) erraiten da, bainan "Zu hor zabiltza" eta ez sekulan : zabila (...) Beraz, ikasleak argi ikusi behar du :

■ «hi» SINGULARRA dela osoki : bai dohakon adizkerarentzat bai akordatzen delarik

■ «zu» PLURALA dela adizkerarentzat bainan SINGULARRA akordatzen delarik.

84§ DATIBOA AHULTZEN ARI BESKOITZEN

Datiboa, edo «norri»-duna, arrunt murritza agertzen zauku Beskoitzen. Ez da sobera harritu behar : zerren-eta elgar konprentzeko, hizketa batetan, ez baita beti horren beharrik (gauza jakina, alabainan, gure mintzairia eleketan artzeko baliatu dela idatzeko baino !)

Anjelusa kantatzean ere erraiten dugu :

"emanen DUZU sortzea"
eta ez "emanen DIOZU sortzea"!

BERTZALDE, ohartua zitzake euskaldunek gure erraitekoak, gehienetan, ele gutiz adiarazten ditugula.

Huna «norri» galdu duketen horietarik :

■ dabilakozu (hura-hari, ZU-ka)
■ dabilakozie (hura-heieri, ZU-ka)

Horik denak frango luzeak eta "pizuiak" direla aitortu behar eta segurtamenik gabekoak gainerat !

Halere holakoak, eta segurtamen osoz egiaztatu gabe ezarri ditudan batzu ere (tauletan, dudazko seinalea (?) dutenak) jalitzen daizkitzutalarik, guziak Beskoitzeko ahozkatzea eginahala errespetatuzene baitan dioztalarik, iduritzen zaut, gazte denboran ezagutu mintzatzaire eder batzu aditzen ditudala ; euskara baizik ez zakitenak, bainan hura hain untsa erabiltzen zutenak !

Bainan nola froga orhoimenak* ala irudimena* ekartzen dautan hori gogorat...

ADITZA : OHARPEN OROKORRAK (segida)

85§ Beskoitzeko BALDINTZAK

Badire EGIAZKOAK eta ALEGIAZKOAK

1) EGIAZKOAK, ORAINAtik eta IRAGANAtik jalitzen dire, «ba» aintzinean harturik, hala-hala, bertze deus aldaketarik gabe :

- da → (balin) bada
- zen → (balin) bazen
- zako → (balin) bazako
- zankon → (balin) bazankon
- du → (balin) badu, eta abar.

BALDINTZA EGIAZKOAK errexki egiten dire-lakotz, ez ditu nehork tauletan emaiten eta ondorioz, batzuiek, ALEGIAZKOAK erabiltzen dituzte EGIAZKOAK behar litazkenean ere !

2) ALEGIAZKOAK, jadanik tauletan ikusiak ditutzu ; «IRAGANA»tik sortzen dire : «ba» hartuz aintzinean, «n» galduz bertze buruian, eta hirugarren presunetan «z»ren ordez «l» hartuz. Ikus ALEGIAZKOEN bi sailak : OBJEKTIBOAK eta SUBJEKTIBOAK.

86§ BALDINTZAK, beren ONDORIOekin

ORAINA ORAINArekin (1):

- pagatzen (balin) baduk edanen diaugu ! [paatzen (balin) ba-uk eaan diaau !]

IRAGANA IRAGANArekin (1):

- ezkondu bazeñ ezkondu, ikasi zian bizitzen
- balin bazakien erran beharko zakoian [balin bazakiin erran beharko zakoian]

ALEGIAZKO ALEGIAZKOArekin (1):

- 1) OBJEKTIBOA OBJEKTIBOArekin (1):
■ trakturra balu ez likek idien beharrik [trakturra balu elikek idien beharrik]
- 2) SUBJEKTIBOA SUBJEKTIBOArekin (1):
■ sal baleza irabazi handia egin lezakek [sal baleza idaazi handia in lezakek]
- 3) OBJEKTIBOA SUBJEKTIBOArekin :
■ hor balitz erran lezakek

(1) EZ BETI : etsenplu bakar batzu emaiten ditugu. Sakontzeko* ikus gramatikak, edo iker lekuaren gainean.

■ EGIAZKOEN LEIHOAK:

ORAINA →	bada
IRAGANA →	bazen
ORAINA →	bazako
IRAGANA →	bazankon
ORAINA →	badu
IRAGANA →	baziñ
ORAINA →	badako
IRAGANA →	bazakon
ORAINA →	badaki
IRAGANA →	bazakiñ

■ ALEGIAZKOEN LEIHOAK: (jadanik tauletan emanak)

OBJEKTIBOA →	balitz
SUBJEKTIBOA →	baladi
OBJEKTIBOA →	balako
SUBJEKTIBOA →	balakio(?)
OBJEKTIBOA →	balu
SUBJEKTIBOA →	baleza
OBJEKTIBOA →	balako
SUBJEKTIBOA →	balezako
OBJEKTIBOA →	balaki

AZKEN HITZ

Zer ditu bada Beskoitzeko euskarak, orokorki, bere pondu oharrarenak ?

Ene iduriko ELEKETARAKO* saila :

- planttan itzulikatuia baita
- behar den bezala erabilia (erranbide nagusietan eta ez menpekoetan)
- hein bat polliki ahozkatzen baitugu
- «zuan» (IZAN) eta «zian» (UKAN) biziki untsa behexten baititugu, Baxenabartar askok, bi kasuietan «zian» derabilatelarik.

Erran behar daitzut, haatik, Lapurdin zonbeitek, «zuan»-en ordez, «huen» erabiltzen dutela eta teorikoki xuxenena litakela. Beskoitzen ere baliatzen dugu «huen», [hiin] ahozkatzen dugula, bainan HIK-HURarentzat BIHURGARRIA sailean eta ez ELEKETARAKOAN.

Bide beretik ontsa behexten ditugu :

- horik baitire [hoik bitie] ETA horiek baitute [hoiek bitute]
- hek baitire [hek bitie] ETA heiek baitute [heiek bitute]
- batzu baitire [batzu bitie] ETA batzuiek baitute [batzuiek bitute]

Azkenik : ahozkatze ez hanbatekoa bainan soinu berezia eta aberatsa !

BIBLIOGRAFIA

GRAMMAIRE BASQUE.....	Pierre Lafitte
DINARRI BILA.....	Txillardegi
EUSKAL ADITZA.....	Patxi Altuna
EUSKARA XVIII 1973.....	Euskaltzaindia
EUSKALDUNTZEN (3 liburukiak).....	Irakasle batzuek
EUSKARA XXII 1977.....	Euskaltzaindia
EUSKAL ADITZ BATUA.....	Txillardegi
EUSKAL GRAMATIKA.....	Txillardegi
EUSKAL FONOLOGIA.....	Txillardegi
GRAMMAIRE BASQUE.....	Abbé Arotçarena
GRAMATIKA BIDEETAN.....	Patxi Goenaga
LE VERBE BASQUE.....	Haize Garbia
LE SYSTEME DU VERBE BASQUE au XVIème Siècle.....	René Lafon
(IKER-2) DE LA FORMALISATION DU SYSTEME VERBAL BASQUE.....	Jacques Allières
L'OEUVRE POETIQUE DE PIERRE TOPET-ETCHAHUN.....	Jean Haritschelhar
PIERRE BROUSSAIN, SA CONTRIBUTION AUX ETUDES BASQUES.....	Pierre Charriton
EUSKAL GRAMATIKA LEHEN URRATSAK II.....	Euskaltzaindia

Irakurtzaile maitea, aitortuko daitzut gostuian, lantto hunek eman dauztan buru haustea : biltzen eta egiaztatzen lehenik, bainan gehiago oraino, ximpleki eta garbiki eman nahiz ! Bainan, ene sor herriko hizkuntzaren ikertzeak ekarri dautan atsegina edo zoriona denak baino handiagokoa izan da ! Eskerrak Jaunari !

Henri DUHAU Jaunari

Adixkidea,

Galde-egiten dautazu zer diotan Beskoitzeko euskalkiaz idatzi duzun lehenbiziko lanaz.

Badakizu zenbat opatzen* nuen norbaitek hurbildik ikert* zean zure sort-herriko mintzairea. Oraindino nehork ez du gaingiroki* baizik aipatu eta loriatu naiz jakin dutalarik deplauki lotu zinaizkola lekuaren gainean bilakuntza ximen*, xehe eta sakon* bati.

Eskerrak eta goresmenak dauzkitzut.

Beskoitzeko fonetikari zorrozki behatu diozu, harek argitu baitzaitu deklinabideari eta aditz-jokoari datxizkoten forma berezieri buruz. Uste dut alde hortarik zetabe xehea erabili duzula, bide-nabar erakutsiz Beskoitzeko euskarak, Lapurdiko Iurrean bizi bada ere, auzoko baxenabartarren hizkuntzaren eite zerbeit bildu duela, nahiz funtsez lapurtar dagoen.

Oraiko lanean gain-gainetik morfologiari egon zitzaizko atxikia : deklinabideak eta aditz jokoak eskaintzen dauzkitzuten hitz aurpegiek zaituzte kezkatu. Bertze aldi batetako utzi duzu argitza zer balio duketen zure herrian "kasuek" eta aditz-jokoek ; ezen askotan, leku batetik bertzera aurrizkiek ala atzizkiek guti edo aski aldatzten dituzte beren erran-nahiak.

Aditzaz den bezenbatean asko gauza salatzen daukuzu :

1) «it» pluralaren marka ezagutzen ginuen UKAN eta IRON aditzen kasu batuetan:

— DitU — GAitU — DitiRO — NitIRON, eta abar. Bainan ikusten dugu Beskoitzen marka hori hedatu dela bertze aditz zenbaitetara ; 105 - 107. orrialdeetan ikus :
— GitAGOK — GitABILAK, eta abar. Uste izaiteko da «it» hori arras zaharra ditekela eta menturaz oraiko «z» horren aintzinekoa.

2) Askorik lekutan, bereziki Ahazparneko ingurumenean, behar gabeko «n» batzu sartzen dituzte jadanik «n» bat azken buruan daukaten adizkeretan, adibidez :

— ZAnKON — NAnKIEN, eta abar. Ez naiz harritzen zuen ganatu baita ohidura hori.

3) Zure tauletan baldintza batzu eta heien ondorioak eskas ditutzu :

— balego / legoke — balauka / lauke. Baditeke nahiago duzuen erran :
— egoiten balitz / egon liteke — iduk baleza / iduk lezake, eta abar.

4) Lehen, laguntzailerik gabe erabiltzen ahal ziren aditz hainitzek galdu dute Beskoitzen berezitasun hori ; ez duzu segurik aipatzen :

— darama — dirudi — dirau — derabila — dakarke — dator — darasa, eta heien segidako formarik. Nahiago bide ditutzue laguntzaileak erabili.

Zure ondoko ikerketek argituko gaituzte ez bakarrik xurruburu horietaz, bainan Beskoitzen emaiten deieten balioaz. Bertzeak bertze, zure laneko 10. orrialdean frogatzen duzu begi aski zorrotza duzula berezitasun zaileneri ohartzeko. Arras jakingarri izan zait hain atxikiak zireztela erranbide nagusietan "eleketarako" adizkereri, non, galderetan ez ezik "gizon hori ona da" erraiteko orde itzultzen baituzue solasa bihurpen* hauietarik batez : "ona bita" edo "ona dela bai".

Hots, zure lehen lan hunek bertze ikerketa eder batzu igurik-arazten dauzku zure ganik.

Jarraik hola-hola Beskoitztar suhar gisa.

Henri Duhau jasunari

Hasierak,

Galdeneagotan dantza zu diuian Bestekitzeko
euskalharriz solatzi dazun lehentziako lanaz.

Bardatekin zentratu oportzen nuen norbailek hurbildatz
ikertzean zuria sortzeherreko mintzairen. Gordetxo nehorak
ez du gomigiroki batzuk erortu eta horrela norz jaten
dorralarrik desplazatu lute zinatzekoa lekuaren gainean
bilakatzeko teman, saha eta sorken artei.

Eskerrik eta guremenau dantzatuz!

Bestekitzeko fonerikari zu zuñari behatu ositzue,
haren argitu dantzailea deklinatzen da
aditz-jonuari dantzailearen forma bereziri batez.

Uste daub alde horretak zebatzea tehean erabili duguola,
tiketakoan erakutsiz Bestekitzeko euskalharrak,
topandako leurrean bigi bader eie, auzoko Beste-

egun zortziko aktibitatea + deklinatzen da aditz-jonuak
eskaintzen dantzaileun hitz-argazkia zeritzule Arizkunen.
Berizte aldi batekoan ulgi daga argitza zu salio dantzen
zurie heinaren n-harsuen, eta aditz-jonuak s-ten astekaren
leku antzeko berizera unarriztien eta oitzizkien gali edo
usti aditzien dituzte beren eran-nahinko.
Aditziaz den begendikalean uho gantzera salatzan
dantza zu:

4. Lehen lagunizuneko zabe erakatzen ahal
zizken aditz hainitzien zulada daite Bestekitzeko

BESKOIZTAR BATEN GUTUNA (1)

Louis-Lucien BONAPARTE Printzeak (2) euskara ikasi zuen eta gehiago dena euskalkien arteko berezitasunak altxatu ere ! Lan ikaragarriak, bereziki aditzari* buruz. Beskoitzeko hizkuntzaren ikertzeko Jean-Baptiste MENDIBOURE beskoiztar apez batek lagundu zuen. Aiherratik - han baitzen erretor (3) - huna, bertzeak bertze, Printze jakintsun handiari igorri zazkon xehetasun batzu :

Monsieur le Chanoine,
Je m'empresse de vous répondre pour vous
transmettre immédiatement les deux renseignements
que son Altesse désire recevoir.

1°)

- 1) Le CHU est employé à Briscous entre femmes ou filles (égales de condition et d'âge) à peu près aussi fréquemment que le HI ou le NO.
- 2) De supérieur à inférieur, le CHU est d'un usage, non pas universel, mais très commun et quasi général, quand le supérieur s'adresse à une femme ou une fille
- 3) Le CHU s'emploie aussi, mais non généralement, ni même fréquemment quand un supérieur s'adresse à un petit garçon. Il s'emploie, mais rarement, entre jeunes gens ou entre hommes.
- 4) Il est très rare qu'on s'en serve d'inférieur à supérieur ; il n'y a que quelques très rares enfants mal-appris qui se le permettent vis à vis de leurs parents. D'inférieur à supérieur, c'est moralement parlant, toujours le ZU qui s'emploie.

2°) Renseignement

Habituellement et dans le langage ordinaire à Briscous, on emploie universellement le traitement respectueux, défini ou personnel. On n'y a presque jamais recours à la forme indéfinie. Ceux qui y recourent ne le font que vis à vis des étrangers et pour faire montre d'érudition; ce sont les demi-savants de l'endroit, qui se prétendent enrichis dans leur communication avec l'extérieur. On y dira donc toujours: Yuan gutuzu - gauza hoi hala duzu Nic hala ikhasi dizut, diat, dinat, nizun etc...

Veuillez agréer

Monsieur le Chanoine

L'expression de mes sentiments bien respectueux.

B. Mendiboure curé

Ayherre le 18 novembre 1869

(1) Koldo ARTOLA jaunak bidali dautan gutuna, hemendik jalirik : Testamentaria del Príncipe Louis-Lucien BONAPARTE, Biblioteca de la Excmá, Diputacion Foral de Navarra.

(2) NAPOLEÓN 1er-en iloba.

(3) Beskoiztar apez hori aipatzen du Emile LARREK bere liburuian : «AIHERRA Nafarroaren Leihoa», 97-98 hostoetan.

Mouvement le chausseur,

Je m'empresse de vous répondre pour vous transmettre immédiatement ce que j'entends par son style d'écrire sa carrière.

- 1^e Le cheu est employé à Brivione entre femme ou fille (également condition et d'âge) à peu près aussi fréquemment que le si ou le NO!
- 2^e De supérieur à inférieur le cheu est bien usage, non pas universellement mais très commun et quasi-général, quand le supérieur s'adresse à une femme ou un fils.
- 3^e Le cheu s'emploie aussi très non généralement pris dans le sens réglementaire, quand un supérieur s'adresse à ses petits enfants; il s'emploie, mais rarement également, jumeau, garçon ou autre personne.
- 4^e Mais très rare qu'un être humain d'âge moyen à supérieur, il n'y a que quelques très-savants mal-épris qui le faire habiller vis à vis de leurs pairs. D'ailleurs à supérieur c'est maladroit, parlant toujours, le zee qui s'emploie.

De renseignement.

Méthodiquement et dans le langage ordinaire à Brivione, on emploie universellement le vêtement respectueux défini ou personnel?

On n'y a presque jamais recours à la forme respectueuse.

Ceux qui y recourent sont soit que vis à vis des étrangers et pour faire montre d'éruditio, soit aussi le denier - Savante de l'endroit, qui se prétend savant dans leurs communications avec les autres.

On y vit donc toujours:

ezuan q̄ntzegi-gauza hoi hala duzu
Vic hala ikhaki dizeit, dia, dinat,
mizun, ect... --

Veuillez agréer

Mouvement le chausseur,

Reproduction de mes entretiens bilingues

B. Baudouin, curé

Toulouse, le 18 Novembre 1989.

S.T. (qui a 107 ans) tenait à tout faire gratuitement ce que
n'importe lequel, il n'a plus monté que à table en été)

IXTORIO LABUR BATZU

Henri,

Juan den eunin galdein dautakan
bezala iorten taiat bizpahiru
ixtorio, aste huntan jinak gogoat.

Lukux (1) - hik ezaautu-uk aise,
Jaureeian bitzen langile - eun
batez behi koska tzar batek
azkarki kolpatu zian. Hantik
zonbeit hilaateen buuian,
sendotu zelaaiak, berriz behi
berak eman zakoian aar ukhaldi
bat iziarria kostetan! Gue
Lukux kolera ikharaarri batetan
plantatuuk :

— behi ustel zikhina, berrizee
hil beharra nuka ?

Hau-ee hie kartierin gertatuia-uk.
Battittako zena ialden
ari zuian seme-atekin. Semik,
gielin, ezin atxik braana
- biziki lur bortitzak bitie -
aita, aintzinin, ohartuia
zeeiti ; azkeein semik erten
dakok :

— jokua baaizu (2) braana hunek...

Erran bezin fite, aitak :

— nahi nikel to, hik ee, bahu
poxi bat !

Henri,

Joan den egunean galdegin dautakan
bezala igortzen daizkiat bizpahiru
ixtorio, aste huntan jinak gogorat.

Lukux (1) - hik ezagutu duk aise,
Jauregian baitzen langile - egun
batez behi koska tzar batek
azkarki kolpatu zian. Handik
zonbait hilabeteren buruian,
sendatu zelarik, berriz behi
berak eman zakoian adar ukaldi
bat izigarria kostetan ! Gure
Lukux kolera ikaragarri batetan
plantaturik :

— behi ustel zikina, berriz ere
hil beharra nuka ?

Hau ere hire kartierean gertatuia duk.
Battittako zena, iraulden
ari zuian seme batekin. Semeak,
gibelean, ezin atxik brabana
- biziki lur bortitzak baitire -
aita, aintzinean, ohartuia
zerbaiti ; azkenean, semeak erraiten
dakok :

— jokoa badizu (2) brabana hunek...

Erran bezain fite aitak :

— nahi nikel to, hik ere, bahu
poxi bat !

<p>Hau haatik eztakiat egiazki Bezkoitzekua-en ala Azpandarrek pentsatuia gue kitzikatzeko... Behin batez, Xalbat, Bezkoitzarra omen, juan zuian koosatzeat ; apezaai erten dakok lehenik :</p> <p>— enezazula dena sinets hee, egiaan erteko, poxi bat zoruaainiz...</p> <p>Zazpiarren manamendurat helduiak zituan.</p> <p>Xalbatek :</p> <p>— auzuakin betan belharretan aa ginelaaiak, bi pentzik ondd' onndduen, gauaz zomeit korkoin (3) eman titzut enen artin...</p> <p>Apezak :</p> <p>— zetako eztituk eman hirik auzuaanin ?</p> <p>Xalbatek :</p> <p>— orduian Jauna, arrunt zorua izaan nintutzun !</p>	<p>Hau, haatik, ez dakiat egiazki Beskoitzekoa den ala Hazpandarrek pentsatuia gure kitzikatzeko... Behin batez, Xalbat, Bezkoitzarra omen, joan zuian kofesatzerat ; apezari erraiten dakok lehenik :</p> <p>— ez nezazula dena sinets hee, egiaren erraiteko, poxi bat zoroa bainiz...</p> <p>Zazpigarren manamendurat helduiak zituan,</p> <p>Xalbatek :</p> <p>— auzoarekin betan belarretan ari ginelarik, bi pentzeak onddo onndoan, gauaz zonbait korkoin (3) eman dititzut eneen artean...</p> <p>Apezak :</p> <p>— zertako ez dituk eman hireak auzoarenean ?</p> <p>Xalbatek :</p> <p>— orduian, Jauna, arrunt zoroa izanen nintutzun !</p>
<p>Lucien ITHURBIDE 1982 Abenduk 23</p>	<p>Lucien ITHURBIDE 1982 Abendoak 23</p>

(1) Lukux deitzen ginen Lukuze herritik jina baitzen.

(2) Hitz-inko (jeu de mots) :

- **jokoa badizu** [jokua ba-izu] 1) Il a du jeu, parce qu'un peu usé
2) Il est adroit, il sait s'y prendre

(3) Belarra abantxu idorra delarik, pentzean berean egiten diren belar-meta ttipiak. Bi abantxial baditu lan horrek :

- lehenik hola, gauaz ere belarra beti idortzen ari da umitzeko partez
 - bertzetik, uria heldu balin bada belarra ez da xahutzen edo bederen hedan utziz egin litaken baino aise gutiago. Horik denak lehenagoko belarretako moldeak bainan gure adinekoek sekulan ahantziko ez ditugunak...

MARTIN SAGARDI ETA BEÑAT ZOKO

Henri,

Ene xookeria hauk leeitziaan, hik bedeen irrine-ukela se-ur nuk. Hantik goiti, haatik, eztakiat ze balio-uten... Dena fota inaaiat : ezpitakit bizi heskuaraan izkiatzen eta bezalde Bezkoitzen erthen den bezala emitia bortitz bitzaut. Halee, eseui baten itik on iten dautak.

Bazituian Bezkoitzen bi gizon xahar :

- bat, Beñat Zokho deitzen zutena : Zokhoteekua zelakotz eta han bizi ;
- bezia, Martin Saardi, Saline Saardinin sortuia, banan herrumes hutsa, eaten, eta Zokhoteirat biltzen zena batzuietan. Elheketari eta zirtolari gaitza zuian. Biak ere, bizi irri eginarazleak zituan eta heien ahopaldiak oono frango bezkoitztarrek gogun tiek.(1)

Zonbeit aldiz, Martin Saardik lo iten zian Salineko selaurian eta aldi batez iziari goratik eori zuian eta doi doieko bat bezik ez minhartu. Sendotuxia zenin, Antoni, etxeko nausia, erran zakoian :

— bi sos balio ukhan bazintu, hilien zinen bai hortik eor-eta !

Saardik arrapostuia :

— to, askiuk eseiatzia, ikusiko-uk zonbat balio-uken !

Henri,

Ene xorokeria hauk irakurtzean, hik bederen irri eginen dukala segur nuk. Handik goiti haatik, ez dakiat zer balio duten... Dena fota egina diat : ez baitakit bizi euskararen idazten eta bertzalde Beskoitzen erraiten den bezala emaitza bortitz baitzaut. Halere, entseiu baten egiteak on egiten dautak.

Bazituian Beskoitzen bi gizon xahar :

- bata, Beñat Zoko deitzen zutena : Zokotegikoa zelakotz eta han bizi ;
- bertzea, Martin Sagardi, Urgazieta Sagardirenean sortuia, bainan herrumes hutsa, edaten, eta Zokotegirat biltzen zena batzuietan. Eleketari eta zirtolari gaitza zuian. Biak ere, bizi irri eginarazleak zituan eta heien ahopaldiak oraino frango beskoitztarrek gogoan ditiek.(1)

Zonbait aldiz, Martin Sagardik lo egiten zian Urgazietako selaurian eta aldi batez izigarri goratik erori zuian eta doi-doieko bat baizik ez minartu. Sendatuxea zenean, Antoni, etxeko nagusiak erran zakoian:

— bi sos balio ukhan bazinitu, hilien zinen bai hortik erori-eta !

Sagardik arrapostuia :

— to, aski duk entseiatzea, ikusiko duk zonbat balio dukan !

<p>Beze norbeitee hasi zakoian kitzikan :</p> <p>— ze usain tzarraauzuna Martin...</p> <p>Saardik, moztuz :</p> <p>— oixo, nik eztixut fitsik senditzen : berdin xuhook duxu !</p>	<p>Bertze norbait ere hasi zakoian kitzikan :</p> <p>— Zer usain tzarra duzuna Martin...</p> <p>Sagardik, moztuz :</p> <p>— orixu, nik ez dixut fitsik senditzen : berdin xuhonek duxu !</p>
<p>Eun batez berriz :</p> <p>— egia dee oilo hilak (2) jaten tutzula ?</p> <p>Saardik :</p> <p>— bai, xuk zer tutxu biziik jaten ? Jan dixut bai nik axeriaree ; hau haatik barnin, kanpun bezin ergela-uxu ! (3)</p>	<p>Egun batez berriz :</p> <p>— egia deia oilo hilak (2) jaten ditutzula ?</p> <p>Sagardik :</p> <p>— bai, xuk zer ditutxu bizirik jaten ? Jan dixut bai nik azeria ere ; hau haatik barnean, kanpoan bezain ergela duxu ! (3)</p>
<p>Bezaldi batez :</p> <p>— eta, errazu, zetako etzie esposatu ?</p> <p>Saardik :</p> <p>— ba, oixo, bat hartziaan bezik dolüiten zantaxun... (4)</p>	<p>Bertzaldi batez :</p> <p>— eta, errazu, zertako ez zire esposatu ?</p> <p>Sagardik :</p> <p>— ba, orixu, bat hartzean, bertzeak dolu egiten zautaxun... (4)</p>
<p>Abettun IRIGOYEN 1982 Urriak 3</p>	<p>Abettun IRIGOYEN 1982 Urriak 3</p>

(1) Egia da ; gerotzik bizpalau presunekin aipatu ditut ixtorio horik eta harritu niz zoin untsa orhoit ziren denak ! Bainan gertatzen dena da jende batetik bertzerat badirela differentzia ttipi batzu eta bakotxa bere uste harten dagola. Hala nola, Martin SAGARDIK azeria jan zuen ala azkenharroa, ezin trenkatua da. Hola da beti gisa hortako ixtorioekin. Ikus molde bat hautzatu behar nuen eta hautzatu dut, ez bata bertzea baino xuxenagokoa iduriturik bainan izkizioz emana jin zautalakotz.

(2) Oilo hilak = eritasunez hilak

(3) Jan orduko, denak goitika igorri behar ukantzen...

(4) En épousant l'une je regrettais l'autre...

KANTU XAHAR BAT

Gure amari entzun dakoguna frangotan. Silaba edo zangoak nun nahi eskas ditu. Halere den bezala agertzen dugu, beharbada norbaitek xuxenduko eta osatuko duelakoan...

Musikaren idazten arizan direnak eskertzen ditut, ez baitzen lan erretxa: Jean-Christian HOURCASTAGNÉ, Peio OSPITAL eta Mixel DUCAU.

Soldado juan nintzen sortiak emanik
 Ait'amak etxian bakarrik utzirik
 Haurrik ere ez zuten ni baizik
 Uste zuten hila nintzel'eungoitik
 Jaun Jainkoak eman daut kontserbu
 Zahartzen nahi tut lagundu.

Jende onak plazer duzue
 Soldado arrotzik aloitza?
 Amak erran zautan nigarrez:
 "sar zaite jar zaite jauna hortxe;
 Etzanen zare ohian seme armadetakuarenian"

Zoin armadetan da zure semia
 Nortian al'Italietan da?
 "Ah, jauna bater'ez dakigu
 Ja badu aspaldi ez dugul'izatu berririk"

D = 170

1) Sol- da- do juan nintzen sorti- ak e- ma- nik

Ai- ta- mak etxi- an bakarrik u- tzi- rik Hau-

-rrik e- re/e tzu- ten ni bai- zik Uste

zuten hi- la nintze- l'eun- goi- tik Jaun

Jain- kuak e- man daut kon- tser- bu Za-

-har- tzen nahi tut la- gun- du.

2) Jen- de o- nak plazer du- zu- e
 Soldado a- rro- tzik alo- i- tze- a? A-
 -mak e- erran zautan ni- ga- rrez: "Sar
 zai- te, jar zai- te jau- na hor- txe; E-
 -tzanen zare -- o- hi- an se-
 -me arma- de- ta- kua- re- ni- an"

3) Zoin ar- ma- de- tan da zu- re se- mi- a
 Nor- ti- an al'I- ta- lie- tan da? "Ah,
 jau- na ba- ter/ez da- ki- gu Ja
 ba- du as- pal- di ez dugu- l'i- za- tu
 be- rri- rik"

ARTO XURITZETAKO KANTU BATZU

Esku xurietan, eder arrosa, eder arrosa; edertxago da zitroina

■ Mayi Bazterretxekeño hori,
hoi zoin pollita, hoi zoin ederra ; aurten ezkontzen omen da

■ Beñat Mendigaraikoño hori,
hoi zoin pollita, hoi zoin ederra ; aurten ezkontzen omen da

Horien bien ezteietarat errege zaldiz heldu da ;
Erregina ere bidian da. maitia kontent zirea ?

Oharpena : Kasu hantan, Mayi Bazterretxekoa arto xuritzaietarik bat da eta ezkonduia
izan dadin edo ez, ez du mutua. Beñat Mendigaraikoa, aldiz ez da arto xuritzaietan;
hura ere ezkonduia izan dadin edo ez berdin du. Mayik, arrapostua eman behar du
(usuenik BAI ?)

GURE ETXEAN IKASIAK

Ogi berde berde,
Xazko arbol eiharrak aurten flore dire ;
Abantailos ere !
Etzaiztela esposa eni erran gabe,
Zuek ezteitzale eta ni jale !

(Eta segida, nola ote da ?)

Arto xehe xehe, bi bahetan (1) bahatu, bi bahetan bahatu

■ Mayi Bazterretxekeño hori, bidean errebelatu, bidean errebelatu

■ Beñat Mendigaraikoño hori, han kausitu omen du, han kausitu omen du

Xato, Mayi xato, etxir'ez (2) errebelatu, etxir'ez errebelatu

(1) Crible, van

(2) Ez xira ez...

"INDARRAK JOANAK DITU HORREK !"

Aitatxi zenak, Batista LAFOURCADEK, kondatzen zuena. Behin hamalaueko gerlari ohiak Lurden ziren beilaz. Saindu handi baten itxura (statue) herdoildu baten aitzinean apez kartsu bat ari zitzakoten predikuiian ozenki hari buruz. Bet betan, gerlari ohi batek ihardesten dako, gora gora :

— "gizona, indarrak juanak ditu horrek !"

"SAGUIA ITOA !" [sabuia ïttua !]

Ateraldi hau, Jan-Piarri LAFOURCADE, otto Apeztegiak egina da. Ttipia zen oraino. Behin, esnea egosten ari, suian - orduian ez baitzen bertzerik - kaxa (1) neskatoan (2), laratzetik dilingo.

Behin batez, bet betan, ikusi zuen sagu bat, ximiner sahetsetik, esnearen barnerat erortzen eta, biziki poliki, erran zuen :

— "sabuia ïttua !" (Harentzat, hura baitzitaken gertakaririk handiena ; etxeko-entzat, bixtan baita, esnearen galtzea zelarik !)

(1) Casserolle

(2) Suspension pour crémaillère

Aita DOURISBOURE misionest beskoiztarra.

Joanes LEIZARRAGA ospetsuaren ondotik hau ote da gure herritarrik handiena ? Dena den fama handiko misionesta izan dela ezin uka. "OTOIZLARI" beneditanoen aldizkari guziz maitagarrian altxatu dugu Aita DOURISBOUREn gutun zati hau : "...ba nahutan(1) bezala, batuetan atorra bezik gabe, bertzetan pantalunekin" (Otoizlari, 120. zenbakia)

(1) Nahi dutan

"GIZONA GIZON, SASKIPETIK ERE !"

1956eko negu bortitz hura zen. Jadanik behartsu bilakatuia zen gizon bat jin zen egur egiterat Laharragako edo Larreixtako xaralat. Sortzez heletarra zen eta Xarlex zuen izen ttipia ; alarguna, lau seme ameriketan. Lo egiteko, Eiherabiderat - jendez hustuia zen auzoko etxe batetarat - joan beharra zen gizagaizoa ! Dolu eginik, etxerat hartu ginuen eta negu guzian haren ixtorioeri beha, loriatuia egon ginen ! Beti orhoituko niz, batetaz, behin bainotan kondatu baitzuen :

Behin, etxe batetan bizi ziren senar-emazte batzu. Gizona ttipia eta ahula ; emaztea aldiz, gaitza eta azkarra. Bazuten zakur bat. Egun batez, jaun bat etxerat heldu zitzakotela ikusirik, emazteak erran zakon senarrari : eman zite saski horren azpian ! Eta gizona saskiaren azpian gorde zen. Bainan delako jauna etxeari hurbiltzearekin, zakurra hasi zen sekulako herausietan (saingaka) eta emazteak nehundik ezin ixilaraz... Azkenean, gizonak, saskiaren azpitik, oihu bat egin behar ukana zuen zakurra ixilarazteko eta zakurra ixilarazi ere baitzuen ! Emazteak erran omen zuen orduian :

— "gizona gizon, saskipetik ere"

Ixtorio hau emaiten dugu, BAKARRIK, orhoitzapen handi baten lekuko bezala, batetik eta bertzetik bere erran-nahia zoin den jakinarazi nahiz.

OROITZAPEN : "MILESKER ERRAN NAHI BAGINAUTZUKE"

HERRIA astekariaren 20. urte betetzea zen Baionan (1964 ?) Bilkura bururatzean, Aita LAFITTE zuzendaria, hasi zen han ginen guzien presentatzen, bederazka. Ene aldia jin zenean, "LEIZARRAGAren ildotik" hitzak erabili zituen ! Soberakinak hatxeman nituen : ez bainuen orduian, arras arrasa pentsatzen, euskara ikertzen ariko nintzela egun batez !

Bertzalde, bilkura hortarako gomitean bazen hau : "...milesker erran nahi baiginautzuke." Biziki ederra hatxeman nuen «baiginautzuke» hori, osoki eta erreski konprenitzen nuen ; bainan ontsa orhoitzen niz egin nuelaene buruiarekin : "aise konprenitzen duk hitz hori, bainan ez hintazke kapoble, gutun* batetan, hitz horren sartzeko". Eiki bada, ordukotz banuen artikulu parrasta bat idatzirik, bainan ez nakien «baiginautzuke» adizkera bat zenik ere !

Baditake gertakari horrek zautala sor arazi, lehen aldiakotz, euskal aditzaren lantzeko, zilatzeko gutizia zerbait... Zer aski den batzuetan !

HIZTEGI AHULTZEA BELAUNALDI* BATEZ (zonbeit etsenplu)

ZAHARREK	GURE ADINEKO BATZUIEK
emak galtzar azpian.....	emak beso azpian [emak besazpian]
zeina hadi.....	egin zak "aitaren" [izak "aitaren"]
behaztopatu.....	trebukatu [tre-ukatu]
emak ihiz bat.....	emak xorta-xorta bat [emak xorta-xorta-at]
barda.....	atzo aratsean [atzo atsin]
etzi.....	bihar pasatu-eta [bihar pastuta]
herenegun [heeneun].....	atzo aintzinean [atzo aintzinin]
punimendua.....	punizionea [punizionia]
mahungak altxatu.....	besoak altxatu [besuk altxatu]
amakatuia hiz !.....	ekipatuia hiz ! [ekipatuiaaiz !]
oñ oñak.....	[bunbunak]
irakurri [iakurri].....	[leeitu]
baitzen [beitzen].....	[bitzen]
soinua.....	musika
angoldu.....	arranjatu
NO-ka beren arreberi.....	ni, XU-ka
Aita zenak lau ELEKETARAKO formak erabiltzen zituen:	Nik, hiru bakarrik :
■ bere aitaginarrebari : ZU	■ ait'ameri : ZU
■ bere emazteari.....: XU	■ arreberi : XU
■ semeri.....: TO	■ anaiari : TO
■ alaberri.....: NO	

Denek ezagutzen dute Eguberriko kantu eder batetan : "Berri bat dakarke den handiena". Orhoitzen niz haurrean ez nakiela zer erran nahi zuen «dakarke» horrek, eta ari nintzen ez ote zen : "berri bat da klarki" edo holako zerbait. Aditza ikasten hasi ondoan galdunakon amari : konprenitzen duzu zuk «dakarke» horrek zer erran nahi duen ? Eta amak segidan : "ekartzen, doaika..."

(1) Henri DUHAU 1942an sortua lan hunen egilea. 14 urtetan zertifikata. Gero laborantzan Lekorne Garro-ko ikastaldi laburrak segituz : 3 urtez, urtean sei aste bakarrik. Soldado 18 hilabete Baionan eta Laval-en. Euskaldun Gazterian lanean eta gero kargudun. "Oinak-Arin" taldearen sortzailetarik. Donapaleuko "Lur Berri"-tik teknikalari- idazkari bezala. Euskal Herrian gaindi, lur berrien sustatzaile. 1968an ezkonduia Senpererat ; han, Marie-Hélène bere emaztearekin, beren kinkaileraian lan egiten. Euskal batasun askotan lankide edo laguntzaile. Seme bat, Paxkal, 1969an sortuia.	(2) aita Piarres DUHAU 1908-1980 BESKOITZE Bordaberrian sortuia gero Mexeretan, gero Iturbidean eta Leizarretxean, beti bordari. Iturrealde- rat ezkonduia. Gerlarik ez egin, (4 haurren aita baitzen jadanik) errotik Erresisten- tziaren aldekoa. 26 urtez herriko kontseiluian 1945-1971 (18 urtez lehen axuant)	(4) aitatxi Xalbat DUHAU Labeagerrea BESKOITZE	(8) aitatxiren aita Piarres DUHAU Labeagerrea BESKOITZE (9) aitatxiren ama Gaxuxa DARRICAU Horontxeta (?) BARDOTZE
		(5) amatxi Mañeñe OSPITAL Mentaberrikoborda BESKOITZE	(10)amatxiren aita Batista OSPITAL Mentaberrikoborda BESKOITZE
			(11)amatxiren ama Mari POMMIES Irunaga BESKOITZE
	(3) ama Xane LAFOURCADE 1909an sortuia BESKOITZE Eiheraldean sortuia, gero Behereko-Eiheran egona eta Iturrealderat jina hamar urtetan. EZ da behin ere herritik kanpo egon.	(6) aitatxi Batista LAFOURCADE Harrietakoborda BESKOITZE Hiru etxe ttipi patartsu erosi : ■ Iparragerrea (2ha) ■ Urtubia (3ha) ■ Iturrealdea (15ha)	(12) aitatxiren aita Betran LAFOURCADE Mendibilea BESKOITZE (13) aitatxiren ama Jana-Mari LAFORCADE Haranederrea BESKOITZE
		(7) amatxi Mañeñe OLHATZ Mentakoborda BESKOITZE	(14)amatxiren aita Beñat OLHATZ Mentakoborda BESKOITZE (koblaria) (15)amatxiren ama Xaneta HIRIGOYEN Urkurai HAZPARNE

Ene arbasoetan, IZENEZ gaskoin frango bainan IZANAZ denak euskaldunak eta laborariak ! Beskoitze, bakar batzuiez kanpo, euskalduna zen gure orhoitean. Ene arbaso horietarik zonbeitek, gaskoina ere bazakiten, haatik, guti edo aski. Ez dugu xeheki miatu, bainan Herriko Etxeko paperetan eman dugun behakoaren arabera, DUHAU izena, Labeagerrean [Labiagerrin] zen jadanik 1623kotz !

Aita Piarres LAFITTE jakintsunak erran daut: DUHAU eta DUFAU, bi deiturak, gauza berak direla, LAFITTE/LAHITTE, LAFOURCADE/LAHOURLADE eta abar bezala. HAU(RE) edo FAU(RE) «arotza» [ahotza] da gaskoinez. (RE) galdu da DUHAUren kasuian : gaskoinek ere, euskaldunek bezala, silabak «jaten» baitituzte batzuetan ! DUHAU deitura euskaraz erran behar balitz, (H)AROTZARENA edo holako zerbeit izan litake. Batzuiek diote, «harotza» ere «haure»-tik heldu dela...

DUHAU deiturako ainitz bada Beskoitzen ; LARRE, ELISSALDE, CURUTCHET eta OSPITALEkin herriko izen hedatuenetarik da. Ez nagoke DUHAU bat aipatu gabe : denek hain maite ginuen izaba Pikasarrakoa, Anna BERHONDE, (1870-1977) (sortzez DUHAU baitzen, Xalbat DUHAUren arreba), 9 haur altxaturik, 107. urtean zenuia !

Ene ait'amak, berrogoi urte ezkonduaik zirela, bazkari bat egin
ginuen Iturraldean eta bazkal ondoan, bertsu hauk kantatu nituen.

Airea : Erdal Itsaso edo Lurraren Pean (hamarreko nagusia)

AIT'AMA MAITEAK

Agorrilaren hoitasei huntan behar dugu ohoratu
Aita et'ama zuen ezkontzak berrogoi urte baititu
Geroztik haurrekazapia hemen ditutzuela altxatu
Jaungoikoari esker beroak detzagun denek bihurtu
Zuen ondorat gure haurrekin guziak bildu baigaitu.

Aita hartzen dut zuri bi bertsu emaiteko ausartzia
Nahi bainuke erran goraki zutaz dugun fiertatia
Goizik zinuen bai eta untsa zuk lanean ikasia
Beti beretik segitu duzu karraskan bizi guzia
Familia bat ederra duzu lanaren gostuz hazia

Lana trumilka izana gatik gure etxe neke huntan
Laster ohartu zinen langilik behar zirela herrian
Baitezpadako direnak ere ez ginituen etxetan
Hoitasei urtez ahal guziak eginik denen onetan
Herriak ahantziko duela ez zazula uste ukana

Ama zuri nik nola kantatu bihotzin sendi dutana
Hainbertze aldiz gu bakotxari arta eman daukuzuna
Ez baitzen hemen gure erdian bizia beti leguna
Bermatu zire jali gintadin ahalik hobekiena
Ez dugu aski estimatuko guretzat egin duzuna

Bizia dorpe hatxeman duzu oi ama zuk ainitzetan
Orai ditugun errextasunak ez baigintuen orduian
Bidea ura et'elektrika etxerat heldu artean
Egin duzu zuk, bertzeak bertze, zonbeit itzuli errekan(1)
Bai eta ere izerdi frango ixuri bide hoietan

Egun ederra eta goxoa deramagu elgarrekin
Jakin dezagun goxatzen hola aita eta amarekin
Bizi hau doa naski denentzat bere on eta txarrekin
Beharko dugu orai segitu zuen etsenpluiarekin
Mundu hau beti ontu dezagun guziekin.

1973 Agorrilak 26

(1) Lavoir

Huna nola ihardetsi zautan aita zenak (bainan ez dazkit hitz guziak) :

Hasten naiz kantatzen, penen deklaratzen, egien erraiten
????????????? ene haurrek joan dira, adios erranik
Halere gaixuak, orhoitzen dira, aitaz urrundanik

=====

ETXEKO MAITEAK

(Airea: Lili bat ikusi dut ; zortziko ttipia)

Sor etxea maite dut nik oroz gainetik
Hainbertze orhoitzapen ditut hor loturik
Kanpoz xaharra bainan barnea goxorik
Munduian ez ditake ohantze hoberik

Adixkidea zato gure aterbera
Idekirik baitago sar zite barnera
Etxe hunek badauka bere hedadura
Mukurru betetzen da askitto ardura

Hemen ginen sortuiak zazpi haurbideak
Hemen berean ere denak handituiak
Baño salbu guziak dire ezkonduiak
Gehienak etxerat noiz nahi bilduiak

Zaharrena Battitta karraskan lanean
Baionako hirian bai eta etxeen
Batzutan kantuz ari hor dabilanean
Kontet han izaitea lagunean artean

Bigarrena arreba Maijane izena
Eskuz trebea eta funtsa baduena
Bardoztar bat hartu du biziko laguna
Etxeaz griñatzeko ez baita azkena

Poxi bat ixilago iduriz Léonie
Goizik etxetik juan zen ta lotu lanari
Ezkontzaz juntaturik Baiones bateri
Arta guzia dauka bere haurñoeri

Etxeko azkarrena Martxela ederra
Laneko ez zen lotsa bazuen indarra
Familian sartu du lehen kanpotarra
Kantari ona eta sortzez Makedarra

Bertsu hauen emaile Henri bortzgarrena
Gazte denboran asko ibili duena
Amak dio : "xoriek ere ezaguna"
Senperen kokatu da horko du laguna.

Bizieta Abettun urrun ibilia
Xuberotik senarra baitu ekarria
Egoitza eder baten egiten hasia
Etx'ondoa hautzatuz ait'amen loria !

Zazpigaren Yveta naski prestuiena
Azkena zelakoan zen guastatuiena
Auzokoak emanik espos erraztuna
Laguntzeko prest dire utzirik Baiona.

Jadanik ait'amentzat pertsuia emanik
Etxe ta haurbideak orai aipaturik
Gaizki erranik balitz hoitan lerraturik
Barkatuko duzue agian gogotik.

1975 Urriak 4

=====

BIXINTXO

(Airea : TTiki-ttikitik ; zortziko nagusia)

Atsegin handi dut Bixintxoren orai hemen aipatza
Beskoitze herri huntako patroin sainduiaren gorestea
Gazte denboran gure gain baitzen pestetaz arta hartza
Hamar bat urtez gogotik in dut herriaren alaitza.

Pesta muntatu nahi duenak galda Noël Gezanburu
Badu idaia eta gainera badaki egiten buru
Langile ona sail bat haseta ez da egonen aiduru
Harek eginak izkribatzeko behar laizke bi liburu

Lehenik behar diruia bildu zerbeit pollit egiteko
Eskea egin baitezpadako soinuiaren pagatzeko
Mutil gazteak birazka ginen etxez-etxe ibiliko
Ilhun kukuia zen aspaldian azkenak sartu orduko

Gazte horiek sosa biltzean billetak saltzen zituzten
Zerbait ederren irabazteko mentura emaiten zuten
Zoin gehiago saldu beharrez espantu frango baitzuten
Eta etxetan usaia gatik beti zonbeitño erosten

Afrunturikan ez egiteko denetan edan behar zen
Jaterat ere zonbeit etxetan ogi-ta gasna eskaintzen
Arno guzien pusarazteko arras gauza ona baitzen
Bainan halere arnoak zuen zonbeitetan gaina hartzen

Eskelariak igurikatuz eleketan merarekin
Guk bildu sosa eta herritik ukanen dugunarekin
Ahal bezainbat egin beharrez ororen laguntzarekin
Elgar aditzen ginuen beti herriko buruiarekin

Gero omore hoberenean guziak finkatzen ziren
Musikariak hautzatzen eta galdatzen lehen bai lehen
Pestak orduian bere itxura agertzen hasten baitzuen
Bertze josteten xutik emaitia aise egiten ginuen

Faltarik gabe Jaun Ertoraren johan nintzen ikusterat
Pestako harat hunat guziak harekilan aipatzerat
Kontseilu onez bete betea heldu nintzen gibelerat
Egin ahala entseiatu niz denen errespetatzerat

Huna Bixintxo bezpera jina denen xutik emaiteko
Eztrada eta girlanda batzu karrikaren apaintzeko
Aratsaldea oso osoa hartzen nuen lan hortako
Etxin goizean lanak eginik gero trankil izaiteko

Pesta aroa maite dutenek jada agertzen sudurra
Berdin ahantziz nolakoa den alkoholaren uztarra
Batzu andarka eta bertzeak ezin atxikiz indarra
Larunbatetik hasi pestak du orhoitzapen iraunkorra

Igande goiza ardura hotza bainan nik ez nuen sendi
Goizik plazarat doi doia ziren zortzi orenak et'erdi
Lucien ene laguntzailea jina izan zaut biderdi
Enhoatuia ene guaitean lanin hasia aspaldi !

Jendea goizik meza nausiko elizaren aintzinean
Barnean gero otoitz kantuiak herriaren fagoretan
Kartsutasuna izana gatik gogoak doi bat airean
Gazteri untsa ibil gintadin gomendiatzen zenean

Mezatik landa gerlan hilentzat emaiten da Martzellesa
Higitu gabe egoiten ginen mementua da seriusa
Serorek egin lili azaua orhoitzapen kartsu gisa
Soldado batek hor balin bada jakinen du nola pausa

Pertsulariak behar ditugu lehenik adiarazi
Gure herrian hauen alderat maitasuna beti bizi
Mattin Xalbador bikotearen ondorea nahiz hazi
Bertze bi gazte hoien ildotik gintuen abiarazi (1)

Dantza talde bat sortu ginuen euskal aro bat pizteko
Lehengo makil ttipi heiekin bakarrik ez egoiteko
Euskal dantzaren edertasuna deneri erakusteko
Oinak-Arin du bere izena segur untsa baitoako

Aperitifak ostatuetan plaz'erdian fandangoak
Soinu ozena* intarrosteko etxin gelditu direnak
Bai eta ere agurtu nahiz kanpotik jin ezagunak
Ahantz detzagun egun batentzat arrangura betikoak

Haroak eta musikak ere buruia doi bat hanturik
Bazkariteko galde samina sabelean senditurik
Sukaldarieki jateko onak dituzte apailaturik
Goza dezagun memento on bat elgarretara bildurik

Bazkal ondoan etxeank antuz zinezko goxotasuna
Guziak betan edo adituz Jan Battitten boz ozena*
Horrela ager dadila beti familia euskalduna
Bixintxozen denen begitartean ikus dadin zoriona

Orai bunbareni zartarazteko orena da etorria
Gero soinuiak piztuko dauku dantzan artzeko tirria*
Hautzatuko dut neska gazte bat maite duena irria
Arraitasunez bete dezagun karrika eta herria

Bala fini da guazin etxerat giten poxi bat pausatu
Astelehenen bada zer egin beharko goizik xutitu
Bertzeak bertze irri-jokoak behar dire kudeiatu
Zer atsegina denak direnin untsa juanik bururatu


Bertze igandin arrepesta da juan ditela denak ongi
Negu minean Bixintxok dezan guzien gogoa argi
Ez dut lan hortan nik irabazi ez diru ez eta ogi
Halere berriz hasteko balitz bide bera nio segi

Azken pertsuia emangogo dut sortu nizen herriari
Ainitz zor baitut hemen iragan dutan gazte denborari
Euskal lurrazen iparraldean zaude euskara zaindari
Jarraik guziak Bixintxorekin Herriaren zerbitzari

1977 Urtarrilak 22

(1) Bertsutan hasarazi ginituenetarik bat Dominique EZPONDE Jatsuarra (Baxenabarre)


BRISCOUS / BESKOITZE



(270)



(271)



(272)

(270) Diamètre : 0,40 m. Epaisseur: 0,19 m. Tracé un peu irrégulier; au revers une croix. Sans nom, sans date. Les motifs géométriques sont uniquement employés sur les discoïdales très anciennes; ils sont généralement composés d'éléments rectilignes. Les stèles de Briscous sont, à ce point de vue, une exception.

(271) Diamètre: 0,39 m. Epaisseur: 0,15 m. Au revers, une croix avec un entourage de bâtons brisés, analogue à l'avers. Date gravée :1745

(272) Diamètre: 0,34 m. Sur le champ, huit anneaux concentriques taillés en biseau; au revers, trois. Sans nom, sans date. Paraît ancienne. On peut constater, sur cette pierre anonyme, la tendance des vieux lapidaires basques à ne représenter que des motifs géométriques; à noter également l'absence de tout emblème religieux, ainsi que cela existe sur d'autres stèles paraissant également très anciennes. Cette ornementation a tout simplement pour but de différencier le monument indiquant l'*etxeko hil-harria*.

Extraits de: **LA TOMBE BASQUE RECUEIL D'INSCRIPTIONS FUNÉRAIRES ET DOMESTIQUES DU PAYS BASQUE FRANÇAIS * 1906 - 1924 *** L. COLAS DEL.





Joanes LEIZARRAGA

"Joanes LEIZARRAGA Beraskoizkoa"(1) da gure herritarrik aipatuiena eta famatuiena, aise. Harek zuen, lehen aldikotz, euskalarat itzuli TESTAMENDU BERRIA. Elizkizunak, katixima bat eta bertze lan batzu ere egin zituen. Lan ikaragarriak : ordu artio, euskaraz eginikako handienak ! Euskal elizkizunlari lehena izan da.

Etxeko seme ona baitzen, ikasketa handienak eginak zituen. Bazakien, latina, española, francesa, greka eta, bistan dena, euskara errotik. Haistik, LEIZARRAGAk ez zuen, kasik batere, gure herriko euskaran idatzi*. Bere laguntzailekin (2) moldatu zuen halako «heuskara» orokor bat : haren helburuia* ez baitzen gure herriko euskalkiaren erakustea, bainan bai orduian sortu berria zen protestant erlisionearen hedatzea ! Erran dezakegu ere, beraz, LEIZARRAGA dugula euskararen batetaratzale lehena. Bertzalde, haren idazkietan dugu ikusten lehen aldikotz «HEUSKAL HERRIA, NAZIONE» bezala aipatuia. Horiek guziek biziki gora emaiten daukute gure Joanes LEIZARRAGA.

1563an, beraz, galdegin zakoten euskarazko itzulpen horien egitea. Bainan, berak erraiten dauku, lana nekez bururatu zuela : bertzeak bertze, euskaldun guziek konprenitzeko gisan arizan baitzen.

1571KO AGORRILAREN 22AN, "JOANA ALBRETE (3) NAFARROAKO ERREGINA ETA BIARNOKO ANDERE GEHIEN DENARI" ESKAINI ZAKON DELAKO EUSKARAZKO LEHEN ITZULPEN LANA, LA ROCHELLE HIRIAN INPRIMARAZI ONDOAN. Urrats historikoa euskararentzat. Gertakari horren laugarren mendeburuia Beskoitzen ospatu zen 1971an eta, orhoitgarri bezala, harri lantu bat ikus ditake Herriko Etxe aintzinean ; sahetseko argazkian den hori.

LEIZARRAGAren lanak irakurtzean (4), ikus ditazke euskararen aldaketa batzu, ordutik hunat forma aberats ainitz galdu baititu bainan ere bertze forma batzu sortu. Ikus dezagun, jasta bezala, zoin ederki idatzi* zuen "GURE AITA", abantxu gaurko bera baita :

GURE AITA ZERUETAN AIZENA ; SANTIFIKA BEDI HIRE IZENA. ETHOR BEDI HIRE ERRESUMA. EGIN BEDI HIRE BORONDATEA ZERUAN BEZALA LURREAN ERE. GURE EGUNeko OGIA IGUK EGUN. ETA BARKA IETZAGUK GURE BEKATUAK, NOLA GUk ERE OFENTSATU GAITUTZENEI BARKATZEN BAITERAUEGU. ETA EZ GAITZALA SAR-ERAZI TENTAZIONETAN, BAINA DELIBRA GAITZAK GAIXTOTIK.(5)

1567an Bastidaratz izendatu zuten artzain (pasteur); 1569an, Protestanten sinodoan aurkitzen da. 1574ean, lau artzain ikasle berekin ditu. 1598an oraino bizi da. Biziki zaharturik hil zen. (6)

(1) Berak, bere buruiarentzat hala zion. Hola dakigu ere gure herriaren lehenagoko izena «Beraskoitz» dela : «Briscous» ere hortik jalitzen bide da, ahozkatze tinkatze baten ondorioz eta gainerat doi bat gaskoindurik.

(2) Hiru laguntzaile ukantzen zituen : Joanes XEBERRI, TARTAS eta LANDETCHEVERRY.

(3) Joana ALBRETE = Jeanne d'ALBRET (mère d'Henri IV)

(4) Haren lanak untsa konprenitzeko doi bat trebatua izan behar da. Denak bildu eta ikertu ondoan, liburu lodi bat - 1440 hostokoa - jali zuen Hugo SCHUCHARDT aleman euskaltzale handiak, 1900. urtean. Ikus : «I. Leizarraga-s Baskische Bücher von 1571».

(5) Gabriel ARESTIren liburutik hartu dugu, irakurtzeko erretxagokoa delakotz, oraiko idazkeran emana baita. Ikus : «JOANES LEIZARRAGA, EUSKAL PROTESTANTISMOA ZER ZEN»

Ohar giten ere TO-ka mintzo dela Jainkoari. Protestantak "les tutoyeurs de Dieu" deitzen zituzten. Irakasle-ikaslen artean ere TO-ka ari da ; bertze otoitz batetan, berriz, «ZU» erraiten du espos lagun bakotxari.

(6) Piarres CHARRITTON jaunari bildu xehetasunetarik.



Beskoitzeko UR GAZIAK gorenean zirelarik

Laburzki bada laburzki erran behar dugu, denboraz, Beskoitzeko UR GAZIEN fama (1) biziki urrun hedatzen zela ; gatza zaukaten lurak ere hedatuiak baitziren : 155 hektara eta 98 ara hartzen zituztenaz geroz, 1850ko urtean. Funtsean, auzoan ere, Urketako lurretan baten gatza (2).

Ontasun horik, EspaÑiako errege ALFONSO XII.arenak ziren : horrek berak erakusten baitauku zer heinetako aberastasuna zagon gure herrian (3). Errege hori gazterik hil zen (4) eta haren alarguntsa Maria-Kristinak errege-ordezko bezala (régente) segitu zuen. Beskoitzen zaukaten ontasunen kudeiatzaile, igorri zituzten erresumako lau baron leialenak : GRIMALDY, BOISOT, GIRARDIN eta RIGNON (5).

Eremu horietan, sei zipu edo putzu baziren: Lardanaviakoa, Elixagakoa, Urgazieta (6) erdikoa, Sataritzekoa, Teileriakoa eta Latsaldekoa. Urgazietakoa zen ainitzez handiena. Haren inguruian kausitzen ziren, ola edo lantegiak, aterbe handienak, baziak bat bortz tona pizatzen ahal zituen, bortz mila pintako hiru erresalbu ur gazia atxikitzeo, hamabortz zalditegi eta bulego zabal batzu ere.

Zipuietarik, langilek, jalitzen zuten ur gazia, batzuetan bizi barnatik ! Duela 30bat urte, bidetik ez urrun, ikus zitazken burdin dorre handi hetarik bispahiru, oraino xutik. Ur gazia zurgatzeko tresneriaren "etxeak" ziren. Gero, sei bertz iduriko untzi handi batzuetan, su labetan irakitarazten zuten, gatz idorra bilakatu artio. Eta hola, labe horik orotarat, urtean, 20.000 tona gatz egiteraino heltzen ziren !!!

Gatza, paketaka eta zakuietan eman ondoan, aterbe horietan metatzen zuten, handik gero, itzaineik orgetan karreiatzeko. 50bat idi parek egiten zuten Baionako itzulia egun guziz. Hiru arotz [ahotz] bederen ari ziren idi perratzen, goiz arats. 10 libera pagatuia zen Baionako joan-jina. Bertzalde, zernahi egur behar zen labeak berotzeko ; bazutela arrakesta egurrak eta egur egilek ! Beharrik herriko lurren hiruetarik bigak oihan baitziren ! Halere lur ikatza ere behar zen eta Baionatik gibeleratekoan, itzaineik ekartzen zuten, hartarik ere, egurraren laguntzeko edo ordaintzeko.

Hurbilago zelakotz, geroxago, Ardanavia ur bazterrera johan zuten gatza eta han "ganbares" delako untzietarat kargatzen. Ezantzaren mendea oraino sortzekoa baitzen, untzi hek tiratzen zituzten zaldiekin, zirga (7) bidetik eta Baionako merkatarien saltegietarat joaiten. Azkenean, gatz guzia idi orgez ezin karreiatuz edo merkeago karreiatzeko, ur bide bat egin zuten hudi (8) luze batekin, Urgazietarik, Ardanavian gaindi, Aturri (9) ureraino.

Lehenago, gatzarentzat bazen zerga berezi bat "la gabelle" izenekoa. Zerga hori ez nahiz pagatu, tratulant batzuek, kontrabandan erosten eta saltzen zuten gatza. Hortakotz ziren Beskoitzen guardak, legearen errespetarazteko (10). Oraino ikus ditaken etxe-kaserna batetan egoiten ziren. Erran gabe doa, askok ez zituztela biziki maite...

1860eko inguruian, urte jori hetan, gatzari esker, 2.000 jende hurbil bizi zen Beskoitzen (11). Orduan, Urgazietako kartierak berak 600 jendez goiti bazituen. Zer nahi ofiziale bazen, bereziki arotz, bertz egile edo kauter, bai eta ere zurgin, hargin, zapatain, espartin egile, dendarri, uztarri egile, hari eta oihal egile. Hor zen ere GOYHENETCHE notaria. Komertzio saltegiak bapo eta eder : ostatu, haragitegi eta janaritegietan bazen denetarik. Eros zitazken ere oihal, soineko, oinetako, burdineria, kinkaileria eta laneko tresna mota guziak. Bazen lana eta diruia sartzen.

Bainan, 1892 urtean, Maria-Kristinaren baron handiak - sakelak untsa bete ondoan - hemendik aldaratu ziren. MINJONNET & BAUDRON izeneko sozietate batek erosi zituen UR GAZIAK, lantegiak eta lurra, 300.000 libera urretan. Handik goiti, lana beheitituz joan zen beskoitzarentzat eta denbora zailagokoak jin ziren.

(1) J.-C. EYHERABIDE Beskoitzeko auzapez ohiak eman dauztan xehetasunetarik ; nihonek aditu orhoitzapen eta bildu argitasun batzu bertzalde.

(2) Ikus Julien VINSON jaunaren liburuian «BASQUES ET LE PAYS BASQUE», 1882, 28. hostoa : «En fait d'industries propres au pays, il ne faudrait pas oublier les Salines de l'Alava et du Guipuzcoa et en France celles d'Urcuit, de Briscous et de Villefranche où l'on exploite de riches mines de sel gemme.»

Ikus ere Eugène GOYHENETCHEren liburuian «LE PAYS BASQUE» (1979) 595. hostoa : «La richesse de Briscous fut longtemps ses salines qui envoyait de l'eau salée aux thermes de Biarritz par une canalisation spéciale et extrayaient 20.000 T. par an de sel gemme, et 17.000 de soude.»

(3) Lehenbizikorik orhoitu behar da zer gauza guziz baliosa zen gatza lehenagoko denboretan. Ikus Jean-Claude HOCQUETek zer dion «LE PATRIMOINE DE L'EUROPE» deitu liburuian : (extraits) «On trouve le sel et le poivre dans toutes les cuisines. Le sel a toujours été exploité sur une grande échelle. Certains gouvernements ont profité de la nécessité d'utiliser le sel comme conservateur pour lever un impôt sur cette denrée précieuse et financer leurs guerres. Pendant longtemps, le sel a eu un intérêt médicinal autant que culinaire. L'homme ne peut pas vivre sans sel»

(Un des trois systèmes de production) «On pompait l'eau salée de puits souterrains à l'aide de systèmes hydrauliques complexes. L'eau salée était alors bouillie dans de gigantesques bassins peu profonds pendant au moins trente heures et, au bout de vingt heures, on pouvait commencer à rassembler les cristaux de sels au rateau.»

(4) ALFONSO XIII.a : sortu, 1857an — errege alkian jarri, 1874ean — ezkondu Maria-Kristinarekin, 1878an — hil, 1885ean. Seme bat ukatzen, aita doi-doia hil ondoan, ALFONSO XIII.a izanen dena. Lehenbiziko ezkontza bat ere, guziz amodiozkoa, egina zuen bere lehen kusi Maria-Mercedes ORLEANS-ekin. Bainan lehen emazte hau galdu zuen ezkondu-eta 5 hilabeteren buruko. Birden emaztea, beraz, Maria-Kristina de HABSBURGO-LORENA : sortu Autrixian 1858an eta zendu Madrilen 1929an. Beraz, ALFONSO XII.a hil zenetik Maria-Kristina errege-orde (régente) izan zen 1885etik 1902ra arteo. (Jesús RAMOS iruñarrak eman xehetasunetarik)

(5) Le Baron de RIGNON hori Beskoitzeko auzapez ere emana izan zen 1860an, prefetak izendaturik, NAPOLEÓN III.aren denborak baitziren. Izendatze hori ez zen, haatik, denen gostukoa izan !

(6) Les Salines

(7) Chemin de halage

(8) Tuyau

(9) Adour

(10) Hola zen Beskoitzerat jin OTXALDE bertsulari famatuia, guarda lanerat.

(11) Bizitzaileak Beskoitzen : 1954ean : 925 jende ; 1990ean : 1759 jende.

Joanes OTXALDE bertsularia Beskoitzen egona

Huna, laburzki, haren bizia : (1)

- 1814eko buruilenaren 25ean sortu zen, Bidarrai «Mangian». Frantsesa ez zakien guti baizik. Nahiz, denbora hetan, bazen holako frango...
- 18 urtetan Aiherran zen, mutil, ilagintzan ere bazakiela.
- 1836eko hazilaren 26an ezkondu zen; 22 urte zituen eta emazteak 18.
- 1838an guardetan sartu zen, urriaren lehenean. 24 urte zituen.

Traka luzeko gizona zen : 1,78 m ; ordukotz baitzen poxi bat. Bere bizian ainitz lekutan egon zen : Lartzabale Zibitzen, hilabete bat — Legarren, 3 urte eta 9 hilabete — Bidarrain, 5 urte — Heletan — Saran — Lekornen egonen da 7 urte, hor sortuko zakote beren hamekagarren haurra ! — Makean — eta beraz, Beskoitzeko Ur Gazietan egon zen 13 urte, 1859 eta 1872 arte hortan. Hortakotz, Beskoitzeko herriak, 1964ko buruilenaren 6an, omenaldi eder bat eskaini zakon eta orhoitzapenezko harri bat ezarri Herriko Etxe aintzinean, sahetseko argazkian den hori. Ez da harritzeko, beraz, beskoitzarrek sortu kantari talde batek OTXALDE izentzat harturik ere !

- 1866an guarda lana utzi zuen eta faktur segitu zuken Beskoitzen, Harretxearen egoiten zela. Beskoitzetik landa Hazparnerat joan zen. Handik, Ameriketan ere ibili zen gure OTXALDE ; hala dio segurik, Jose MENDIAGUE Hazpandar bertsuzale handiak. Bainan laster itzuli zen gibelerat eta Bidarrain, bere sor herrian, hil artio egon. Bazuen zerbaitek kurriturik ere ! OTXALDE, 70-75 urtetan oraino, oinez heldu zen Bidarraitik Hazparneko merkaturat, bere zahar paga ere hor altxatzeten baitzuen denbora berean !
- 1897ko abendoaren 13an hil zen, Bidarrai «Sastrianean», 83 urtetan.

Bere bizian pesta egitea maiteago ukan zuen lana baino ! Oroz gainetik, bertsuen emaiteko beti prest zen : egundaino ezagutu izan den bertsulari handienetarik bat izan baita OTXALDE. Zernahi bertsu badu emanik, zoko guzietaratz gomitatzen baitzuten. Huna harek eman kantu ezagutuienak :

- | | |
|--|-----------------------------|
| — IRUÑEKO FERIETAN IRAGAN SAN FERMINETAN | — XANTXUNDEGIKO XAKURRA (2) |
| — LURREKO ENE BIZIA | — ETXAHUN ETA OTXALDE (3) |
| — ZAHAR GAZTEN ARTEKO PARABOLA | — MADALEN LARRALDE (4) |

Bertzalde eman dituen eta bilduiak izan diren bertsu batzu :

- | | |
|--|----------|
| — SARAN EGUN BADUGU BERTSULARI HANITZ — BESKOITZEKO PESTETAN (5) | — MAKILA |
| — IRRISARRIKO TOBEREN KANTUAK, 1883AN — AMODIOA ZER DEN — NAPOLEON-I | |
| — PEPA ETA KOAKIN — SUPLEBANT BAT DERAUKU — KILO EGILEAREN KANTUAK | |
| — ZALDI ZAHARRA — CARNOT PRESIDENTAREN HERIOTZEA — ENE AIT'AMEK HASTEKO | |
| — BERANTEKO URRIKIAK — AZPARNEKO ELIZAZ — KANTU BERRIAK — SOLDADO ONDOAN | |
| — MURDE LAFONT DEPUTATU NAHI DUGUNARI (6) — ESKUAL HERRIA ATZARRI DA (6) | |

(1) Ikus Jules MOULIER-OTXOBIAK egin lana : «OTXALDE», GURE HERRIA 7/8 1950—11/12 1951

(2) = MEHETEGIKO XAKURRA ; Gratien ADEMA-ZALBUBIAK lantu (eta berriz izendatu?) baitzuen.

(3) Ikus, Jean HARITSCHELHAR-en artikuluia, «GURE HERRIA» 1967 Agorrila.

(4) Kantu huntarik eginarazi ginakon aita LARZABALI «SARAKO LOREA» deitu antzerkia.

(5) Anttoni CURUTCHET Hirigoinekoak OTXOBIAKI igorriak.

(6) Ikus : «J.-B. ELISSANBURU eta OTXALDE bi gorri», F.-B. LARZABALEK egin artikuluia, EKAINA aldizkarian, 1985, N° 16.



Beskoitzeko neskateko gazteak (1952)



1952 Neskatoko gazteak

					5 GAINEAN
1 BEHEREAN	2	3	4		
LARREGUY Germaine Hiriartea		ELLISSALDE Bernadette Gerezieta	JOCOU Jeanne Aranbidea		
CAPDEVILLE Jeanne Harrietakoborda	MOUESCA Louise Kazinoa	BACARDATZ Jeanne Nimisaga	LARRE Marie-Jeanne Latsaga		
LARRE Marie Jau(regi)berria	CURUTCHET Marthe Xobatenea	ELLISSALDE Marie Mexereta	OSPITAL Marie Jauregittipia	ETCHEVERRY Bernadette Hariztoia	
HONDARRAGUE Marie-Thérèse Mueska	LARRE Louissette Etxegaraiia	OSPITAL Marie-Thérèse Bordaberrria	LARRE Marie-Thérèse Latsaga	HUGRON Marie-Jeanne Menautegia	
GESTEDE Elisabeth Ameztoiberria	LARRE Gracie Etxehandia	ETCHEVERS Gracie Errekaldea	DUHAU Marie-Jeanne Iturraldea	BACARDATZ Gracie Mimi saga	
LARRE Louise Latsaga	DASSANCE Marie Pagadoia	LARRAN Louise Etxekolattipia	HEUGAS Jiji Mulottipia	LARRE Marie Gerezietia	
DUHAU Léonie Mentaberri koborda	MAILHARRANCIN Marie-Jeanne Plazebururia	LAFITTE Juliette Larreixta	ELLISSALDE Marie Kumaitegia	GESTEDE Louise Ameztoiberria	
ETCHEVERRY Marie Hariztoia	FORZAN Marie Zokategia	MOUNTOT Laurentine Lamarkarea	OSPITAL Marie Altzuieta	SAINT-PIERRE Béatrice Xapitalea	
PEYRELONGUE Germaine Betrikondegia	CINQUALBRES Denise Zubiburuia	FORZAN Yvette Zokategia	OSPITAL Marie Urrizpururia		
HIRIART Maite (URKETA)		DUGUINE Antoinette Gorteaga	AMESTOY Alberte Etxehandia		
LAFOURCADE Angèle Harrietakoborda					

- Argazki* hau eta ondoko hostokoa. "GAZT'ETCHEA" estrenatu zutenean hartuak izan ziren. Biziki ederrak eta orhoitzapenez beteak direla ez da erraite beharrik.
- Deiturak eta izen ttipiak, usaien idatziak ikusten diren bezala eman ditut (hutsik balin bada, otoi barka !)
- Beskoitzeko etxe zaharren izen ederrak aldiz, ahalik eta hobekienik idazterat entseiatu niz. Hastapeneko hitzari hurbiltze hori, agian begi onez ikusiko duzue.
- Ohargarri ere da bi argazki horietako guziak euskaldunak direla bat edo biga salbu.

Beskoitzeko mutiko gazteak (1952)



1952 Mutiko gazteak

1 BEHEREAN	2	3	4	5 GAINean
DOYHAMBEHERE Xemartin Kurutxeta	BIDEGAIN Jean Hariaga	SAUTIER Jean Galbarreta	DUHAU Jean-Baptiste Iturralde	DUHAU Armand Mentaberriko borda
ELISSALDE Jean-Baptiste Kumaitegia	BERHONDE Pierre Mendibilea	ETCHEVERRY Gilbert Pestegia	ELISSALDE Roger Larremendia	ITHURBIDE Jean Konstantinea
DOYHAMBEHERE Léandro Estebetegi koborda	SORHOUET Julien Oihartzabalea	ETCHEBERRY Marcel Pagoeta	DASSANCE Jean-Pierre Pagadoia	DASSANCE Michel Pagadoia
MUNTOT Etienne Lamarkarea	ELISSALDE François Gerezieta	LARRE Jean Larreitxakoborda	HIRIBERRY Pierre Jelosea	DUHAU Sauveur Mentaberriko borda
MAILHARRANÇIN André Plazeburua	BIDEGAIN Robert Hariaga	HONDARRAGUE Gabriel Mueska	CAMON Jean-Louis Behigoa	DUHAU André Mentaberriko borda
BIDEGAIN Pierre Hariaga	MENDY Jean-Baptiste Haranederrea	SAINT-PIERRE Pierre Xapitalea	LARRE Martin Latsaga	SUHUBIETTE Louis Menautegia
DIHARCE Guillaume Jaun Bikarioa	OSPITAL Jean-Baptiste Jauregittipia	LARRAN Henri Etxekolattipia	CAPDEVILLE Emile Harrietakoborda	ERRECART Pierre Sabatendegia
SABAROTZ Bertrand (buru) Harrieta	SALARERRY Albert Dihanartea	LARRE Léon Etxehandia	ETCHART Pierre Mentakoborda	FORZAN Robert Zokategia
BIDART Albert Donamartinea	OSPITAL Georges Jauregittipia	JOCOU Gratien Aranbitdea	GUEÇAMBURU Noël Salaberrinea	MICHELENA Félix Uharteia
BIDEGARAY François Larregaina	ERRECART Léon Berfeta	SALABERRY Jean Oihanartea	CAPDEVILLE Albert Harrietakoborda	DOYHAMBEHERE Michel Estebets gikoborda
ERRECART Bernardin Hargindegiberrria	OSPITAL Séverin Jauregittipia	ETCHEVERRY Daniel Hariztoia	LARRAN Jean-Laurent Etxekolattipia	CURUTCHET Sauveur Xobatenea
ITHURBIDE Louis Larremendia	LAMOUREUX Sauveur Betrikondegia	CURUTCHET Pedro Iduzkidegia	LARRE Jean Eñautenea	LARRE Marcel Latsaga
SORHOUET Sauveur Oihartzabalea	SABAROTZ Arnaud Harrieta		MENDY André Lohiztegia	DUHAU Martin Mentaberriko borda
			SORHOUET Bernardin Oihartzabalea	DUHAU René Mentaberriko borda

Beskoitzeko OINAK ARIN ihautez Baionan (1966)



1966 «OINAK ARIN»

1 BEHEREAN	2	3	4	5 GAINLEAN
JOCOU Martin Xurtategia	ELISSAIDE Josette Hondarraga			
DRIOLET Armand Bixtaederrea	OSPITAL Monique Bidartea			
ELHUYAR Bernard Olaztea	LARRE Louise Xandondegia	SAUSSIE Jean-Claude Osabategia	URRUTIGARAY Anna Irunaga	ELHUYAR Jean Olaztea
HIRIGOYEN Jean Leizarrretxea	SEMICOURBE Marie-Jeanne Larraidea	JOCOU Gaston Xurtategia	IRUBETAGOYENA Yvonne (URKETA)	SAINT-PIERRE Etienne Xapitallea
ERECART Pierre Berfeta	BIDART Marinette Bruzetenea	SAUSSIE Michel Osabategia	ELHUYAR Salvat Olaztea	EYHERABIDE Jean-François Salaberrinea
ELHUYAR Jean Uhaqunea	AZNAR Pierre (OLDARRA)	JOCOU Jean-Pierre Xurtategia	ELLISSALDE Henri Bidegaineekoborda	OSPITAL Jean Agerrekoborda
EYHERABIDE Bernard Salaberrinea	ZABALA Koldo (OLDARRA)	LAMOUREUX Jean-Claude Gainekoetxea	DIRATCHETTE Léon Hegia	CAPDEVILLE Henri Harrietakoborda
SUHOBETTE Gérard Nemautegia	NOBLIA Laurent (OLDARRA)	NAVARRON André Baratzartea	DIRATCHETTE Jean Hegia	ITHORIOLE Lucien Konstantinea
SAUSSIE Marcel Osabategia	ELHUYAR Marie-Marthe Uhgunea	JOCOU Marcel Xurtategia	ALBERRO André Hegnasekoborda	DUHAU Henri Iturraldea
LAMOUREUX Lucie Gainekoetxea	HIRIGOYEN Monique Leizarretxea	DIRATCHETTE Jean Hegia	LAFOURCADE Paul-Sauveur Apetzegia	
DRIOLET Gracie Bixtaederrea	ELHUYAR Marie Olaztea	DUHAU André Juantxorenea	SEMICOURBE Jean-Baptiste Larraidea	
JOCOU Geneviève Xurtategia	ELISSAIDE Jeanine Bidegaineekoborda	CURUCHET Michel Maixtegia		
LAMOUREUX Bernadette Gainekoetxea	JOCOU Marie Xurtategia			
MICHELENA Monique Alegre	DUGUINE Annie Paxkorenea			
DRIOLET Marie Bixtaederrea	NAVARRON Annie Baratzartea			
HIRIGOYEN Maite Leizarrretxea				

Ihautez, BAIONAn. Argazkian falta : laguntzaile andana bat eta buruzagia: N. GUEÇAMBURU.

HASIAN HASIren lehen partea argitarat emaitean

Lantto hau egina nuen 1982an bainan ez nintzen menturatu argitaratzerat*. Lehenik, senditzen nuen bazuela ene lanak osatzearen eta xuxentzearen beharra oraino : idekitzen dutan aldi bakotx hutsak hatxemaiten baitazkot ! Bertzalde, euskara batua orduian sortzen ari zen eta ez nuen nahi ukana - deus gisestaratz ere - trabatu. Bainan ere ari nintzen : zer behar dute erran senpertarrek, ni han bizi eta hangotuia, jakinen dutelarik Beskoitzeko euskararen ikertzen ari nizela, su eta khe ? Bertzetik berriz, zer behar dute pentsatu beskoitzarrek : urteak, sor herritik joana nizela eta orai - denboraren buruian - sail horri lotuia ikusiko nutenean ?

Bainan ikusirik gaur euskara batuak behin betikotz gaina hartuia duela batetik eta bertzetik herri batetako euskalkia untsa miatzeko herri harten sortuia behar dela izan, hara zertako - gostarik gosta - ene saila aintzina segitza erabaki dutan. Eiki bada bertze arrangura bat ere banuen : euskaldunek ez dutela maite "etxeeko aferen" agertzea ; eta herri batetako euskalkiaren publikatzea "etxeeko afera" baten aipatzea bezala da, azkenean. Hoberenak erakutsiz bakarrik egiten ahal balitz, pasoa... Bainan hori ez baititake ordean... Eta euskaldunak hoin trebe bertzeren euskalkietako bitxikeriak ikusteko !

Hortaz, haur hutsa nintzela, handiagokoek igorri ninduten, besoen puntan altxaturik, hesiaren gainetik, Dorreko kanaberena erdirat, pilota baten xerka. Usaia zen hola egiteko. Bainan gaizo nik pilotarik nehum ez ikusten ! Azkenean, erran omen nuen : [ezpita ezaun !] (= ez baita ezagun). Hain bitxia hatxeman zuen ene fonetika Irkus ROBLES-ARANGIZ Lekuederrekoak - Bizkaitik Beskoitzerat jinak - nun, 40 urteren buruian ixtorio hori kondatu baitaut «XALBADOR» Larrañeko pastorala egunean ! (Nik 9 urte eta harek 14, erranaldi hori albantu zautalarik)

Arretik erraiteko, biziki goxo zaut orhoitzapen xahar horren aipatzea : margolari eta euskaltzale adixkide baten ganikakoa delakotz lehenik eta gero lantto hunen 11. hostoan agertu dutan ikus moldea ezinago hobeki egiaztatzen baitu. Alabainan, bertze nunbeiko batek "ez da ezagun" erranen zukelarik, nik "ez baita ezagun" erran bainuen, Beskoitzeko molde berezian. Milesker Irkus !

Bainan berriz gure harirat jin giten, ez ginan gu hobeak. Beti orhoitzen niz Baxenabarretik Beskoitzerat ezkondu emazteki batek - Bixintxo asteleheneko josteteri beha - eskaputzerat utziz bezala nola erran zuen : [so-ixu zapargarria !] (= so egixu zapargarria !) Bainan «so» horren ahozkatze-soinua arrunt berezia baitzuen eta «zapargarria»-ren «z» hura ere... baginuen gero aski, horrekin, emazte gaixo haren eskarniatzen gure artean !

Haur-ixtorio direla horik ? Ez bakarrik. Erdi arralleriaz bazen ere, Senperen entzun dut «dakot» (= diot) delakoaz : "hoi baxenabartar buhamien mintzaira". Eta holako frango baginuke denek kondatzeko ! Eiki bada, jende baten errespetuak berak galdeginen luke bakotxaren mintzaira onartzea, areago, euskararen egoera* deitoragarrian*!

Badire eztabadak senar emazten artean ere, bata baxenabartarra eta bertza lapurtarra denean eta... Baionan bizi ! Hirrsku handia da haurrak amaren hizkuntza hartzea, behin segurik : haur tipia amarekin baitago aitarekin baino... gehienki bederen. Bainan aitek ez ginuke hortaz gaitzitu behar : EUSKARAZ mintzatzea hora baita beharrena ! Gisa guziz, MAITASUNIK gabe ez da deusik egiten ahal eta harek beharko ditu legundu bideak, hizkuntza alorrean bertze alorretan bezala...

Dena den, egia da, egungo egunean, elgar hobeki onartzen dugula. Nolaz bada hoinbertze denbora eman dugu ohartzeko euskalki bakotxak badauzkala aberastasun bereziak, ahulgune bereziekin ? Hortakotz dugula euskara batua egin behar, denetarik hoherena hartuz ?

HAATIK, ETXEKO ETA LAGUNARTEAN MINTZATZEKO, GURE "HERRIETAKO EUSKARAK" BEIRATU BEHAR DITUGU BAITEPADA ! DEUSEK EZ DITU ORDAINTZEN AHAL, HAIN BARNA SARTUIAK BAITIRE EUSKALDUN ZAHARREN BAITAN ; ODOLEAN BAITITUGU !

Hots, Ian huntan joanago eta gehiago senditzen dut, denbora berean, euskalkien lantzearen beharra eta euskara batuaren premia*. Urte parrasta bat ikerlari-ikasle nabilala, ikusten ditut batzu beren euskara goregi emanez eta bertze batzu berriz ahalgez ! Bi moldeak bardin erasiagarriak dire ! Axaleko ustekizun horik utzirik urruntxago joan baginte ? Hortakotz ez da bide bat baizik : IKERKETA LANEN EGITEA ETA PUBLIKATZEA.

Egia ! erraitea erretxago baita, ordean... Zonbat buru hauste hautuiak egin aintzin, ez jakinez nola eman hitzak : ahozkatzen diren bezala ala idatzi behar litazken bezala ? Ala biak ? Bainan bi moldeak beti emanez ez ote nituen ene taulañoak sobera kargatuko ? Sasi bat muntatuz, gauzak argitzeko orde ilunduko ?

Euskaltzale lagun batzuen artean ere, ikusi ditut, zonbeit, hartua nuen saila aipatzen nakotelarik, harriturik gelditzen zirenak edo sail berezi huntan sineste guti dutenak. Beharrik hor nuen akulatzaile, Piarrès LAFITTE zenak igorri bertze gutun bat ere : "Zure Ian baliosari jarraikitza ez zinuke uste izan behar entsegu alfer bat dela. Oroit naiz Euskaltzaleen Biltzarrari igorri nion Ian batek, euskal aditzari zatzikola, jujek ez zutela hanbat estimatu, nahiz LACOMBE zenak sustengatu ninduen. Geroztik ene orduko iritzia ez dira biderdi egon. Otoi ez zaitela etsimendurat ierra. Jo aintzina, bertzek ez badute ongi ikusten ere nora zoatzin zure ikerketetan." (1983/01/05)

Berrikitan oraino, aditu dut euskaldun berri bat - Uztariztarra - errepikatuz badabilala : "Euskararen ikasten ari naiz eta urrats handi bat egin dut bide hortan, oharto naizelarik, euskaldunek mintzatzean, hizkiak edo berdin silaba batzu ere «jaten» dituztela." Hain xuxen, jendearen ahozkatzeko moldeari chartzea ez ote da lantto hunen griña handia ? Banuen hor, beraz, eragilerik* aski ene azken duden kentzeke eta argitaratzeko erabakia* har-arazteko.

Bertzalde, 1991an, Louis-Lucien BONAPARTE printze euskaltzalea hil zelako ehungarren urteburuia ginuen. Ikus haren aipamen bat 122. hostoa. Laborari ume hunek ere nahi ukano nolazpeit MILESKER erran jakintsun handiari, gu bezalako hizkuntzaz ukan duen arta miresgarriarentzat.

Bainan hamar urteren buruian dena berriz idazten denean, habemaiten da zernahi gauza xuxentzeke, kentzeke edo eransteko*. Horrela, aditz jokoien IZENDATZEA aldatu dut : geroztik deitura berri batzu argitaratu baititu Euskaltzaindiak, hala nola "ALEGIAZKO". Ikus : EUSKAL GRAMATIKA, Lehen Urratsak, Euskaltzaindia.

Halere garbi geldi bedi, 50, 51, 52 eta 53. hostoetan agertzen diren SAILKATZEAK, bertzeak bertze, ene burutarik egin ditudala, batzuen eta bertzen lanetan ikusiak, ene gisan, elgarretaratuz.

Henri DUHAU

Oroitmenaren* selauruetan, euskararen lekukotasun ainitz, ezagutza eskasez edo ezazolkeriaz, galdu dira eta bertze batzu baztertuak izan, nimbait, errauspean egoteko, hizkuntza batu* baten izenean.

HASIAN HASI, Henri DUHAUk plazaratzen duen lan luze hunek ez du errautsik eta oroitzapena baino haratago, bertze bide bat erakusten dauku memoriaren eremuetan.

Egileak, haur denboratik orain artino entzun HITZAK biltzen ditu, sentimena, pentsamena, hots, biziari lotuz, erran guzieri kasu emanez eta, beraz, errespetua ekarriaz.

Ausartzia izan du hizkuntza MINTZATU bati lotzeko : asma ditzakegu zalantzak, adibidez, idazkera* hautatzerakoan !

Beharrietarik ahorat, ahotik begi eta luma puntarat, idazleak jakin du, ordean, nola betikoratu bere sort etxeko eta Beskoitze bere sort herriko mintzaira gehiena.

Erakusten dauku, HITZA bizi den soinu bat dela, larru eta bihotz, inguramena jasanez dabilana eta ez bakarrik idazkietan eta intelektual hautuetan artatzeko etzanik den zerbait.

Idatziak* laguntzen duelakotz HITZA (hor dauka bere erronka euskara batuak*) senditu du, denbora berean, ixkribua tresna zela, eta HITZA tresna horren HATSA !

Agian **HASIAN HASI**, Henri DUHAUren liburu hunek, bultzatuko ditu euskararen memoriari HATS emaileak.

1993 Uztailak 12 Auxtin ZAMORA.



GEHIGARRIA / SUPPLÉMENT (2020)

**HASIAN HASI (lehena)
liburua plazaratu ondoan
agertu ziren lerro batzuk :**

- Artikulu,
- Mintzaldi,
- Telebistan...

(ikus dokumentu osoa, 170 orrialde)



**HASIAN HASI (lehena) 600 ale (seirehun ale) inprimatu nituen eta
etxeen gelditzen zaizkidan bakar batzuk salbu, denak joanak dira
aspaldian. H.D.**




BESKOITZEKO HESKUARA “Hasian hasi” *Henri DUHAU*

Eihera harri beraren azpian ezberdintasun guziak lehertzen eta errausten ari dituen modernitateak ez zituelarik oraino bere kalte guziak eginak, adinean han harat goazenak oroitzen gara zein gogor herri bakoitzak zaintzen zi-tuen bere berezitasunak, onerako ala txarrerako.

Auzoek, egia erran, urrikari bezala zeuzkaten maizenik, beren “bitxikerie” horrela lorturik zeuden “gaizo giblatuak”. Oroit zer behakoa botatzen zion Paristarrak Proibintziarrari eta... Hazpandarrak Makearrari edo Beskoitzarrari. Gogoan dut oraino Manex Hirriart Urrutu zenak mende honen hastapenean bere Almanakan, Beskoitzar itzain batzuez trufatzeko, asmatu zuen “Pinterdia” deitu ipuin xorrotxa.

Urun dira denbora haiet : Beharrik ! Ez da orai euskaltzalerik, batasun doi baten beharra zalantzan jartzen duenik, baina Euskararen Hiztegi Orokorra egiten ari den Euskaltzaundiak berak, Xarlex Videgain eta haren taldearen kondu emana du Euskal Herri osoko atlasaren egitas-



moaz. Lan handi horien bururatzeko beharko dira ordea oraino urteak.

Anartean hona non Seneren bizi den Beskoitzar batek, *Henri Duhau* adixkideak eskaintzen digun, duela 10-12 urte hasi zuen ikerlanaren lehen liburua. Zinez liburu baliosa, Leizarraga-ren herriko euskalkiaren gaurko ahoskera, deklinabidea eta aditza argitaratzen dizkiguna. Badakigu ere “hasian hasi” bigarren — edo Beskoitzarrek dioten bezala, birden — liburu baten gaia biltzen ari duela Henri Duhau-k, bere sorterriko erranaldi bereziekin. Agian laster bururatuko digu hori ere ! Baitezpadako baitauzkagu horrelako ikerketak... ordu deno.

Oraindanik erran behar dugu *urriko hilabete honen 16 an, goizeko 11 etan, larunbatarekin*, *Beskoitzeko herriko etxearen, Henri Duhau-k* aurkeztuko duela bere lanaren lehen partea. Ber denboran, *Lekuaderreko Irkus-ek Beskoitzeko herriari eskaintzen dion harma-harrria agertuko digute*.

Ongi etorri beraz deneri !

Auzoko Piarres

SUD OUEST

1993-10-13

HASIAN HASI

Le basque de Briscous

Premier volume conçu par un villageois

Plus qu'un essai sur un parler très localisé, c'est une véritable étude très technique consacrée au basque de Briscous. Pourquoi Briscous ? Parce que son auteur a vu le jour dans ce village labourdin dont les particularismes l'ont bercé depuis son premier jour et qu'il y est resté attaché au point de vouloir le pérenniser à sa façon. Deux raisons plus que suffisantes pour expliquer l'initiative de Henri Duhau dont la vie se déroule aujourd'hui toujours en Labourd, mais à quelques lieues de distance... à Saint-Pée-sur-Nivelle.

L'ouvrage s'appelle « Hasian hasi ». Il traite largement du verbe, de la déclinaison et de la prononciation. Autant cette dernière pose peu de problèmes, autant les deux premières sont complexes. Elles exigent, pour être exposées de façon rigoureuse, une connaissance des plus approfondies. En 1982, le chanoine Pierre Lafitte avait encouragé Henri Duhau à poursuivre sur la voie qu'il avait déjà commencée à explorer, lui conseillant de ne pas en rester là et d'aborder un second volet qu'il jugeait tout aussi indispensable : l'utilisation de toutes ces notions dûment répertoriées et classées.

Henri Duhau, qui a déjà accumulé une bonne dizaine d'années de travail, a préféré jouer les sages en s'acquittant d'abord d'un premier volume, publié avec l'aide du groupe Hatsa et d'Auxtin Zamora. Un volume qu'il présentera officiellement le 16 octobre à la mairie de Briscous, son ami Irkutz dévoilera le blason du village.

Henri Duhau a d'ores et déjà recueilli quelque 2 000 phrases aux particularismes bien pesés et sentis. La municipalité de Briscous a réservé un excellent accueil à cette initiative, par le biais d'une aide de 5 000 F destinée à favoriser la sortie de Hasian Hasi. La suite viendra en son temps. La pratique de l'eskuara décline, des efforts importants sont poursuivis par l'Académie Basque désireuse de développer le basque uniifié dans des domaines comme l'enseignement, les communications et la littérature. Mais dans le même temps chacun voudrait voir sauvegardées ces variantes qui sont autant de richesses.

L'écrit supplantera-t-il l'oral ? Henri Duhau espère bien que non ! Mais il souhaite jeter des passerelles entre toutes ces exigences destinées à s'enrichir mutuellement. Un brin de son cœur est passé dans Hasian Hasi : images de maisons traditionnelles, photos de la jeunesse des années, références à Bixintxo, Oinak Arin... Irkuz, en a conçu la couverture.

Henri Duhau

"Hasian Hasi"

HASIAN HASI est un remarquable ouvrage de 155 pages, écrit en basque par Henri Duhau, Beskoitztar habitant à Sempere. Le titre, Hasian hasi, expression savoureuse, absolument intraduisible, reflète bien l'intention de l'auteur, passionné de recherche, qui se lance hardiment dans le collectage des «perles linguistiques» de Beskoitze-Briscouz, son village natal. Hasian Hasi signifie quelque chose comme: «Puisque j'ai commencé, pourquoi ne pas aller jusqu'au bout?»


Ne pas couper les racines du batua

L'auteur ose dire tout haut ce qu'un bon nombre de Basques pensent tout bas: Batua (basque unifié)? D'accord, mais n'en faisons pas un langage artificiel, coupé de ses racines. Le batua sera d'autant plus fort qu'il aura digéré la substantifique moelle des dialectes basques. Encore faut-il que ceux-ci soient étudiés avec soin et localement utilisés. En parcourant ce livre, je n'ai pu m'empêcher de faire des rapprochements avec une question épique à laquelle j'ai été confronté comme bien d'autres au cours de mon séjour en Soule. Sous prétexte de rapprochement avec le basque unifié, le dialecte souletin a subi brusquement une série de retouches phonétiques et orthographiques tellement bizarres et arbitraires que beaucoup de Souletins en sont déroutés. Par exemple, des textes de pastorales présentés avec une orthographe remaniée (véritable charcutage aux yeux de certains) ont provoqué un phénomène de rejet, notamment chez les Haut-Souletins qui parlent si bien leur magnifique dialecte, du moins au point de vue de la syntaxe, plus difficile à maîtriser que le vocabulaire. Afin d'obtenir des acteurs

une prononciation correcte, il a fallu récrire ces textes sans trop s'éloigner de la prononciation traditionnelle des chants souletins, de manière à ne pas tomber dans l'incohérence des Français qui écrivent caoutchouc et qui prononcent élastique (ou presque...).

Démarche à la fois humble et ambitieuse

A ce sujet, plusieurs académiciens basques (Euskalzain) d'Iparralde, y compris Jean-Louis Davant, partagent la même préoccupation, ce qui prouve que des «passerelles» peuvent exister entre la "base" et le "sommet". De même qu'un peu de science éloigne de Dieu, mais que beaucoup y ramène, je constate que des gens très méritants, certes, mais peut-être pas assez compétents, risquent de s'éloigner du langage populaire authentique, tandis que d'excellents spécialistes s'efforcent d'en restituer toute la richesse... Henri Duhau ne se considère pas du tout comme un spécialiste, bien que ses connaissances atteignent un niveau étonnant pour un simple amateur. Sa démarche est à la fois très humble et très ambitieuse. Il n'a pas la prétention de donner la meilleure réponse aux ques-



Henri Duhau

tions qu'il soulève. Mais comment ne pas le féliciter comme le fit le chanoine Pierre Lafitte, pour sa noble ambition: jeter des passerelles pour l'euskara, c'est-à-dire combler le fossé entre ceux qui apprennent le basque et les bascophones de naissance?

De Roland à Brassens

«Hasian Hasi» est en vente dans toutes les librairies bascophones habituelles. A ceux

qui liront cette belle brochure, il est bon de rappeler que la prestigieuse langue grecque ne comportait pas moins de cinq ou six dialectes, avec chacun des chefs d'œuvre, ou encore qu'une étude sérieuse de la langue française va de la chanson de Roland aux chansons de Brassens, en passant par Rabelais, Montaigne, Racine et tant d'autres, tous francophones, certes, mais si différents les uns des autres!

Beskoitzeko euskalkia xurgaturik

Beskoitzeko euskararen ahozkatze, deklinabide eta bereziki aditzaz, a! zer lan baliosa egin duen Sempereko beskoitzarrak!

Piarrès Lafitte, euskalzain zenak igori zeion gutxaren fac-similé delakoa biziki hunkigarri iduri zait, bestea beste diolarik: «... ionatu naiz jakin dulalarik deplauki lotu zinatzko a lekuaren gainean bilakuntza ximen, xehe eta sakon bati... Hots, zurz lehen lan hunek bertze ikerketa eder batzu igurik- arazten dauzku zure ganik. Jarraik hola-hola, Beskoitztar suhar qisa.»

Henri Duhau-ren lan hunek eztabadak sortazariko dituela, ez da dudarik.

Hain zuzen ez da eztabadarik, ez hil —herrietan, ez diktadura pean dauden esku- aldetan... Ene ustez, Henri Duhau-k

ez balu gisa huntako eztabadarik sortazarzen, gure arbasoek utzi mintzairaz paregabearen orde, menturaz euskal hizkuntza bitxi, pobre, zakar eta kasik arrotz bat baizik ez ginuke, erdaraz edo erdal pentsa- moldean asmatua eta kiski-kaska idatzia... Aldiz, duela zonbeit hilabete, Donostiarriko biltzar batean Henri Duhau mintzatu zelarik, entzule guziak xoratu zituen, hain zen garbia eta... euskalduna, Beskoitzeko euskalkia xurgaturik zerabilan euskara!

Roger Idiart

ENBATA 1993-10-14

1993 Urriak 16, Beskoitzeko Herriko Etxean)

Auxtin ZAMORAren aurkezpen mintzaldia

HASIAN HASI, Henri DUHAUren liburu hunen, hemen, ofizialki zueri eskaintza ohore handi bat zauku, HATSA elkartekoeri.

"Bakotxak bere buruaren ezagutza" gure helburuetan daukagulakotz, iduritu zauku egiazki, gure beskoitzar-senpertarra, ildo hortan sartu dela : 12 urtez hartu duelakotz bere Beskoitze sort-herriko eskuara, mirail bat bezala, eta sentimen freskoen argiarekin, hitzez hitz, bide egin duelakotz bere barne eta sakoneko eremuetan.

Uzten dauku liburu hau : haurño bat bezala egina da, ama guziek berek bakarrik umatzen duten bezala. Bainan liburu hau, haurra bezala, aintzineko jenerazoneena da eta guri izanen da haur edo lan hau artatzea, zaintza, maitatzea, handiaraztea...

Bai egiaz ohore handi bat zauku HATSA elkartekoeri, HASIAN HASI Henri DUHAUren liburu hau zueri eskaintza, Euskararen onetan...

C'est un très grand honneur pour nous, membres de l'association HATSA, de pouvoir présenter ici, officiellement, HASIAN HASI, ce livre d'Henri DUHAU.

"Se connaître soi-même" est un des buts de notre association. Il nous a vraiment semblé que notre beskoitzar-senpertar en a suivi le sillon : pendant 12 ans, à la lumière de profonds sentiments, il a pris la langue de son pays de naissance comme un miroir pour aller explorer, approfondir son propre espace intérieur.

Ce livre qu'il nous laisse est comme un bébé... Il l'a enfanté tout seul, comme le font toutes les mamans du monde, mais ce "bébé" est aussi le fruit de toutes les générations qui nous ont précédées... Il revient à nous tous de le soigner, de le garder, de l'aimer, de le faire grandir...

Oui c'est un très grand honneur pour nous de pouvoir vous présenter HASIAN HASI ce livre d'Henri DUHAU. A nous de péréniser son travail pour le meilleur de la langue Basque.

1993 Urriak 16, Beskoitzeko Herriko Etxean

Henri Duhauren mintzaldia

"HASIAN HASI" : euskaldun berri eta zaharren lokarri !

Huna beraz ene lanttoa, 1982an egina bainan geroztik emendatua, argitaraturik dela. HASIAN HASI bataiatu nuenean, sendi nukeen ez naukala saila agorturik... Beskoitzeko euskararen morfologiaz ari da gehienki : ahozkatzea, deklinabidea eta bereziki aditza. Zertako ez dutan lehenago argitaratu ? Arrazoin batzu emaiten ditut lantto hunen 154. hostoa. Gaur agertzen dutana ene lanen lehen partea baizik ez da eta birden bat ere bada bidean : errankizun, ahapaldi, erraiteko molde, sinonimo eta bertzerekin ; bi milako bat erranaldi. (6.000ko bat izanen da NDLR). Luzaz pentsatu dut bi parteak betan argitaratzea. Bainan urte batzu joanen dira oraino birden parte hori prest izan artio, batetik, eta bertzetik, liburua lodiskoa gertatzea beldur nintzen. Alabainan, liburu lodiak lotsagarriak dira irakurle - erosle ez jakintsuarentzat.

1982ko lehen entseiu hora (80 hosto) ikusia eta estimatua zuen Piarres LAFITTE euskaltzainak. Funtsean, berak erraiten daku "loriatua" zela. Ikus haren gutun bat lan hunen 120. hostoa eta bertze gutun zati bat 155. hostoa. Oraiko lan hau ikusia dutenetarik batek ere, Marie-Jeanne MINABERRY Andereak, erran daut *euskara ikasten ari direnek irakurri behar luketela, eta horragon parte handi bat, bertze asko herritarako ere baliagarri izan litakeela*. Batere ez dut gordeko, atsegina handia egin dautala horren aditzeak.

ZERBEIT ENTSEIATU BEHARREZ

Estaliko marrazkia, Irkus ROBLES ARANGIZ Beskoitze Lekuederrekoak egina du. Jakin behar da ere, delako Atlas Linguistiko famatu harentzat lanean ari zelarik, ene laneko pondu ainitzen frogak bildu ahal izan dituela Xarles VIDEGAINek eta zintan grabaturik dauzkala. Azkenik, liburu hundarrean, argazki eta Beskoitzez jakingarri diren batzu aipatzen ditut, familiako xehetasun batzu ere : lana osatzen dukete eta taulen idorra poxi bat goxatzen ; haatik, horien guzien egiazko helburua da irakurlea kilikatzea lan-idaia ttipi batzuekin... Lagun artean bildu ahal xoilekin plazaratzen dugu liburua ; egia erran, ikastola ere hola hola sortu ginuen. Zerbeit entseiatu behar da : aitzurrik txarrena ere ez ote da hobe, aitzurrik gabea baino ? "HATSA" elkartear eginen du liburuaren hedatzea ; eskerrak bihurtzen dazkot hemendik. (Tel 59 54 11 43 edo 59 54 10 44)

Dakitalarik, Iparraldean, lehen aldia da gisa huntako lan bat publikatzen dela. Beskoitzeko euskara biltzea baino gehiago ene xedea zen erakustea gure mintzaira ez dela euskara literariotik iduri bezain urruna ahozkatze legeak ezagutuz geroz. Helburu goregia ? Ageriko !

Dena den, huna, sail huni buruz hasnaurtu ditudan gogoetak - lotsatua eta gogorik gabe nintzenean ere - lanari jarraikarazi nutenak.

HERRI BAKOTXEAN ERE

Xuxen edo makur, bakotxa bere uste eta ikus moldeekin dabil. Ene iduriko, azken 30 urte hautan, "gainetik" akuilaturik, zorionezko urratsak emaiten dira euskara batuaren alde ; bertzaldetik ordean, euskararen erabilpena beti beheiti ari da Iparraldean. Orai, agian ez da berantegi, "beheretik" abiatuz, biderdia egiten entseiatzeko.

Lehenik eta bat : EUSKALDUNEK EZ DAKIGU ZER DAKIGUN eta lantto hunek nolazpeit lagundi nahi luke, sortzez euskalduna, bere hizkuntzaren aberastasuneri ohartzen. Alabainan, gaurko aro frantximenta jasaiten dugula-eta, nola iraun euskaldun, nola gaztetxoeri maitaraz euskara, gure mintzairaren mamiatz deus ez badakigu ?

Nola irakur, nola segi eta goza, eman dezagun, Egunkaria, Hegoaletako telebixta edo hango bertsolariak, euskararen barne-ezagutza izpirik ukana gabe ? Lehen, NATURALKI ginengoa euskaldun, bainan orai, euskaraz mintzatzea NAHIZKO egintza bat da... beharrezkoa izan artean.

Sortzez euskaldunak (euskaldun zaharrak), alfabetatuak izanen ez direno bederen, ez dira nehorat bihurtuko. Heieri hurbiltzekotz, ahalaz heiekin BAT EGITERAINO, euskaldun berrieik eta euskaltzaleek, joan beharko dute euskara mintzatu horri buruz, ez baitute deusik galduko bainan ainitz irabaziko ! Alabainan eskola bakarrik ez da askiko euskara bizi bizirik begiratzeko, INGURUMENA ere behar beharrezkoa du.

Indar handiak eta goresgarriak egiten dira eskoletako irakaskuntzaren alde, bereziki SEASKAn, bainan ere IKAS BIn, eskola libroetan, eta abar. Ez dut ahazten, bixtan dena, AEKren gau eskolek eta euskal irratiek egiten duten lan ezinago baliosa ; bainan iduritzen zaut, HERRIETAN ERE, iniziatiiba batzu pizten ahal litazkeela. Gisa guziz, higitu beharko dugu nolazpeit, bertzenaz laster hizkuntza arrotz bat bezala bilakatuko baita euskara gure Herrian ; denek gogoan dugu Irlandan gertatu dena.

ONDARE BALIOSENA

Orai artio euskalkien lantzea baztertua izan da batasuna egin behar baitzen. Bainan gure erro guziak euskalkietan dira eta euskaldun batek ez ditu bere erroak ukatzen ahal... Hil edo biziko kinka huntan, zer hirriskatzen dugu, euskalkizale lauso heietarik berriz piztea ?

Harri nintazke. Ahozkatze txarraren sustengatzea ? Euskarak zertako ez lezake ukana forma literario baten ondoan forma ahozkatua ? Semeak beti errepikatzen daud, ingelesa ikastean, zailena dela ahozkatzeaz jabetzea... Nahiz ez den konparatu behar, frantsesek ere badute hizkuntza literarioaren ondoan hizkuntza XEHEA (l'argot) : *médecin* edo *toubib*, *travail* edo *boulot*, *enfant* edo *gosse*, eta abar.

Gaur denak bat gaude euskal ONDAREA zaindu behar dela. Batzuek ordean, holako aberastasunen jabe den euskara herrikoia «xokokeria», «xaharkeria» edo «baserritarkeriatzat» daukate. Jes, euskal ondarerik baliosenak ez ote dira bada erroak hain barna dituzten gure herrietako mintzatzeko moldeak ? Eiki ezagutzen dut, bertzeak bertze, EUSKAL FONOLOGIA, TXILLARDEGIren lan handia ; bainan, goi mailako lan horien ondoan ez ote da lan mugatu eta xumeagoko batzuentzat ERE lekurik ? Ala erhoa behar da izan sineste huntan tematzeko, izerdia dariola ?

Ene ustez gauzak behar dira hartu DIREN BEZALA ; euskalarien eta legedi-araudien behar gorria dugu, bainan euskararen erabilpena zabaltzekotan, BEHERETIK zabalduko da : indar hori herritarrek berek egin beharko dute euskaltzaleen laguntzarekin.

HIZKUNTZA XEHEAREN BEHARRA

Aspaldidanik, bierarteko hizkuntza bat baderabilagu, Eskualduna-n, Herria-n, irratietan, elizkizunetan, eta abar ; harritzeko dena da, hizkuntza hori jendeak ez duela erabiltzen untsa konprenitzen duelarik ere ! Halere, Iparraldean, "bierartekotzat" daukadan *ihardetsi* erabiltzea hobe da ezenez-eta *erantzun* ; hau, gutik ulertzen baitute eta askok gaizki ahozkatzen [errantzun] *entzun*-en faktitiboa delarik. Gisa guziz, jendeak konprenitzen duen heineko mintzaira erabili behar da eta gibel asmurik gabe jokatu, ondoriorik ukaitekotz.

Ahal den bezainbatean eta ahal den bezain xuxen erabiliz, hizkuntza xehearen indarra balia giten beraz, garbitzalekerian erori gabe goizegi : kafea -- lunetak -- trakturra -- norbeit arrastatu -- eta holako ainitz hitz, baliatu behar ditugu aintzina ; akeita -- betaurrekoak -- traktore -- norbeit gelditu -- bezalako hitz edo erran-nahi berrieik ez baitute batere errorik ipar Euskal Herrian. Bainan, nehun ez dagon haur bati ez zako erran behar : "zaude (hago) lasai", hori erdararen itzulpen hutsa bailitake ; bainan bai : "zaude (hago) geldirik".

Bego hortan, erran molde horik birden lantto batetan luzakiago aipatzekotan baigabiltza ; lehen hunen oihartzunik batere heltzen bazauku segurik. Orokorki, erran dezagun gaurko bizian, hitz asko eta asko erdaratik hartuz ari behar dugula. On baino hobe litake hiztegi horren euskalduntzea ; bainan kasu egin dezagun denek, joko hautan, euskaraz mintzatzetik nehor LOTSARAII GABE...

